

Udan  
zer egin  
ez dakizula?

IKUSI GURE  
UDAKO AGENDA / 13-20

2018-08-03 OSTIRALA / 652. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



**Harrera-familiak premia duten umeei etxean tokia egiten diete, zentroetan egon ez daitezten** / 2-4



**Arbizuko Kale Nagusiko sareak eta zorua berritzeko lanak aurki hasiko dira** / 9

**Babesgabetasun egoeran dauden haur eta familiak laguntzeko lantaldea sortu da** / 6

**Irurtzungo plazara eta osasun etxera eta Arakilgo udaletxera igotzeko igogailua martxan dago** / 9

**Altsasuko Udalak hainbat lan egiteko 204.491,77 euroko inbertsioa egitea onartu du** / 11


**Iker Mintegi bigarrena kadeteen Txuma Memoriala lasterketa prestigiotsuan** / 28



**Ekhi Congil, Hego Koreako Munduko Monoziklo txapeldunordea 10 kilometrotan** / 24



**"El Muerto Vivo" Iñigo Muñoaren proiektu berria, runba doinuak alde batera utzi gabe** / 31



**Oporretara goaz!**  
Hurrengo Guaixea irailaren 7an izango da





Etzarri Aranzako harrera-familia etxeko belardian. NAFARROAKO GOBERNUA

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideen Aldarrikapena onartu zuen 1959ko azaroaren 20an. Haurrek eta nerabeek jaiotzeagatik berez dituzten 10 eskubideen eta askatasunen zerrenda da. Eta txikienek haurtzaro on eta zorionsua izateko helburua dute. Hona haurren 2., 4. eta 6. eskubideek diotena: babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezzen; elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea eta familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.

Gainontzeko eskubideak horiek bezain garrantzitsuak dira. Baina gertatzen da aipatutako hiru eskubide horiek bermatuak ez dituzten haurrak badirela gure artean. Arretarik gabe, portaera zabarrekin edo abandonatutako egoeran daudelako... Makina bat arrazoiengatik haur bat babesgabe gelditzen da. Halakoetan gurasoengandik banandu eta Nafarroako Gobernuak bere zaintzapean hartzen ditu.

# "Ez dugu superheroi senik"

Premia duten umeak euren etxeetan hartzen dituzten familiek hala diote. Haiek egiten dutena gutako edonork egin dezakegula gaztigatu dute elkarrizketatu ditugun familiek. Bestela administrazioaren zentroetan leudekeen haurren harrera-familia dira

## Irtenbidea

Administrazioaren zaintza, ordea, ez da konponbide egokiena. Horretarako daude harrera-familiak, haur horiendako aldi baterako babesa emateko neurria dira. Haien zaintzaren ardura hartzen dute. Hau da, harrerak irauten

**JOAN DEN URTEAN  
223 ADINGABE 190  
FAMILIAREN ESKUTAN  
GELDITU ZIREN; 74  
HARRERA-FAMILIATAN**

duen bitartean familiek konpromisoa hartzen dute babesgabe zegoen haur horri konpainia eskaintzeko, artatzeko, elikatze eta prestakuntza integrala emateko. Azken batean, familia bizitza egitea, haurrak garapen pertsonal eta sozial osasungarria izan dezan, eta aurretik izandako bizi-esperientzia txarrak errazago ahaztu ditzan.

Baina gurasoengandik bereziak izan diren zenbait haurri komeni zaie jatorriko familiarekiko harremana ez galtzea. Beraz, harrera positiboa izan

dadin, kasu horietan beharrezkoa da bi familien parte-hartzea. Haurraren premia bat da bere bizitzan bi familien presentzia izatea aldi berean, eta, horretarako, beharrezkoa da bisita-erregimen bat izatea.

**NAFARROAN 98  
NESKA-MUTIL  
ADMINISTRAZIOAREN  
EGOITZETAN GELDITU  
ZIREN 2017AN**

Edozein familia izan daiteke foru administrazioaren laguntzailer, berdin da familien egitura, pertsona bakarra edo bikotea den, seme-alabarik duten edo ez. Hala ere, aukeraketa eta balorazio prozesu bat pasa beharra dago, oinarriko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko. Haurra harreran hartzeko arrazoiak solidaritatea izan behar du eta ez familiak bere dituen gabezia afektiboak edo ekonomikoak. Argi izan behar da ere ez dela adopzioa eta jatorrizko gurasoek dituzten krisi-egoerak gaintzeko modukoak izan daitezkeela, eta litekeena dela denboraldi baten ondoren haurra jatorrizko familiara itzultzea. Horregatik, errespetatu beharrekokoak dira haurrak jatorrizko familiarekin dituen harremanak eta bisitak egiteko ezarritako erregimena onartzearekin eta erraztearekin batera.

## Magale.org

Harrera-familien elkarte:  
687 420 583ra hots egin  
(16:00etatik aurrera).

 <b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com		 Etxe pasiboetarako egokia	 Beirak lehorrean jarrita
			 Isolamendu nukleo indartsua	 Aparteko azala koloreztatua
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea				

## Adin txikikoen bost harrera motak

### 1. Larrialdiko harrera

Premiaz esku hartu behar denean edo egoera baloratzeko behar den denboraldian adingabeei aplikatzen zaien neurria da, administrazioaren zaintzapean ez gelditzeko. 0 eta 6 urte arteko haurrendako da. Iraupen laburreko neurria, sei hilabete baino gehiago ez.

### 2. Aldi baterako harrera

Neurri iragankorra da, jatorriko familiaren bilakaeraren arabera haurra berriro itzultzeko aukera ikusten delako. Gehienez ere bi urteko harrera da

### 3. Harrera iraunkorra

Legeak ezarritako 2 urteko epean, jatorriko familiara itzultzeko aukera ikusten den haurrendako da, egonkortasun handiagoko neurri bat behar dutenendako. Izaera mugagabearekin proposatzen da, eta adin-nagusitasunera bitarte luza daiteke.

### 4. Harrera espezializatua

Besteren familiako harrera espezializatua edo profesionalizatua izan daiteke. Hain zuzen ere, premia bereziak (osasun-arazoak, jokabide-arazoak, anai-arreba taldeak, e.a.) dituzten eta banako arreta behar duten haurrendako da. Hartzen duen pertsonak hezkuntza-arloan edo arlo sozialean prestakuntza izan behar du eta haurtzaroan esperientzia espezifikoa.

### 5. Etengabeko

**bizikidetzarik gabekoa** Asteburuetarako eta opor-garaietarako zaintza izan daiteke, familiaren erreferentzia bat behar duten haur handiendako, bizikidetzara egonkorra izan gabe.



Zoraida eta Iñigo etxean dituzten lau haurrekin. UTZITAKOIA

## ZORAIDA ANTON ETA IÑIGO ETXEBERRIA

Bikoteak hiru seme-alaba ditu eta larrialdiko harrera-familia dira. Hiru urte daramatzate programan eta haien etxetik lau neskato jaioberri pasa dira. Azkenak herenegun urte bat egin zuen haiekin

**Alfredo Alvaro Igoa** URDIAIN

### Aurretik ezagutzen zenuten harre-ra-familiarik?

Ez. Duela urte batzuk harreraren zegoen neskato bat Urdiainera bizitzera etorri zen. Horren inguruan pentsatzen hasi ginen: zer gertatzen da haien gurasoekin ez dauden haurrekin? Ego-teko toki bat behar dutenekin? Informatu eta harrera-familia izatea erabaki genuen.

### Zergatik zarete harrera-familia?

Guk beti adopzioan pentsatu genuen. Baina ikusi genuen badaudela gurasoak dituzten haurrak, adoptatu ezin direnak. Hainbat arrazoiengatik Nafarroako Gobernuaren zentroetan gelditzen dira. Eta pentsatu genuen haur horiei harrera egitea hobe izanen litzatekeela.

### Zergatik larrialdiko harrera-familia?

Nafarroan hori egiten duten bost familia besterik ez gaude. Ohiko harrera egin behar genuen. Baina, larrialdiko-harrera egiteko familiak eskatzen zituzten. Normalean ume oso txikiak dira, jaiotze berriak. Pertsona bat haien gainean egotea behar dute. Gure asmoa laguntzea zen.

### Zer eskatzen du harrera-familia izateak?

Lan asko. Nire haur txikiak 10 urte ditu. Berritoki hasi behar da. Jaioberriari jaten eman behar zaio, jatekoa prestatu, fardelak aldatu, sehaska, arropa, gurditxoa... Opatzeko moldata edo erosi. Seme propioekin egin genuen guztia, berritoki. Egundak guztia etxean dago. Bat gehiago familian.

### Eta zer ematen du halako ume txiki bat etxean izateak?

Esperientzia bat da haurrendako eta guretako. Pila bat ikasten da. Ezagutzen dituzu beste behar batzuk dituzten familiak, agian zuk hemen ikusten ez dituzunak. Arrazoi askorengatik haur asko dago harreraren hartzeko zain daudenak. Haurrendako hasieran izan zen... Nola ez dagoela ume bat amarik ez duena? Zergatik ez du? Galdera asko dira. Eta haiendako oso positiboa izan da. Denendako oso positiboa da.

### Badago harrera-familiak babesten edo laguntzen duen ezer?

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ematen digu. Baina kontua ez da dirua. Familia bisitatzera joan behar da. Gero, medikua eta guztia gure ardura da. Azkenean, guk erosten dugu arropa, dena. Ez genuke diruagatik eginen.

### Momentu honetan baduzue?

Bai. Larrialdi-harreraren gehienez 6 hilabete egoten dira, baina honen kasuan gauzak zaildu egin dira eta urtea egin du etxean. **Umea hazten ikusten duzue.**

Aurpegi bat ekarri zuen eta etxean egon ondoren beste batekin joan zen. Azkenean, haiendako oso garrantzitsua da familia-bizitza. Poz aurpegi hori ikustea oso aberasgarria da.

### Irakurleari zer esanen zenioke?

Animatzeko. Esperientzia oso positiboa. Haur asko daude eta familiak behar dira. Nafarroan larrialdi-harrera egiten duten bost gaude. Ume asko daude. **Osorik: www.guaixe.eus**



Gerardo eta Eguzki haurrekin etxean. NAFARROAKO GOBERNUA

## EGUZKI NAZABAL ETA GERARDO BERGARA

Gurasoek bi haur izan dituzte. Aldi baterako harrera-familia dira azken lau urtetan. Bi haur pasa dira etxetik. Aurrena, bere amarekin bueltatu zen eta harremana mantentzen dute. Bestea adoptatu zuten

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANATZ

### Aurretik ezagutzen zenuten harre-ra-familiarik?

Ez. Ni egunero irrati-iratzargailuarekin esnatzen naiz. Euskadi Irratian Gipuzkoa aldean harrera-familiak behar zirela entzun nuen. Gerardori komentatu nion. Interneten Nafarroako elkarteak bilatu nuen, Magale. Azaldu zidaten pixka bat mundu honek nola funtzionatzen duen. Animatu ginen eta Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri ginen.

### Zergatik zarete harrera-familia?

Ez dakit. Hori galdetzen digutenean ez dakit zer erantzun eman. Kontua da haur gaixo horiek familiaren beharrea daudela ikustean... Ba ez dakit. Hor barruan zerbait pizten da eta esaten duzu: badakit zaila dela, baina pauso hori eman behar da. Ez dakit zein den erantzuna, benetan.

### Bestela, Nafarroako Gobernuaren esku leudeke, ezta?

Bai. Pisuetan daude eta erreferentziatzeko norbait badute, baina ez dira gurasoak. Esaten dute haur horiendako bizimodu onena familia batean egotea dela, bestela zerbait falta zaiela haur horiei guztiei.

### Zergatik egin zenuten aldi baterako harrera-familia izatearen alde?

Nafarroako Gobernutik hori eskaini ziguten. Esan ziguten: haur bat dago egoera honetan, hartu nahi duzue? Bigarren kasuan berdin.

### Zer eskatzen du harrera-familia izateak?

Arropa... Dena gure kontu. Neskaren kasuan, gurditxoa eta halakoak ere. Eta logela... lau sartzen diren etxe batean bost ere sar daitezke. Azkenean, moldatzen gara.

### Eta zer ematen du?

Lasaitasuna. Jakitea haur horiengatik zerbait ongi egiten ari garela. Ikusita haur gaixo horiek kanpoan daudela, ez dutela zeinek egon eta...

### Etexko haurrei zer pentsa emanen die, ezta?

Bai. Haiendako esperientzia oso ona da, beste errealitate batzuk ere badaudela ikusten dute. Hemen oso ongi bizi gara batzuk. Baina denak ez. Oso gertu ikusten dira egoera horretan haurrak.

### Badago harrera-familiak babesten edo laguntzen duen ezer?

Nik dakidala ez. Elkarteak dago. Elkarteak gehienetan sortzen dira behar bat dagoelako. Harreman ona dugu, baina ez gara elkartean sartu. Laguntza beharrik ez dugu izan.

### Irakurleari zer esanen zenioke?

Animatzeko. Oso esperientzia polita da. Bai guretako bai haurrendako. Aberasgarria, erabat. Gure kasuan biak joan dira. Egia da gogorra dela. Baina bietan gauzak ongi joan dira. Jendeak askotan esaten du: nik ez dakit hori egiteko trebe naizen. Jo! Ba, ni ere ez! Gogorra da, baina animatu behar da. Gure bizimodua egiten dugu eta ez dugu aldaketarik nahi izaten. Baina denok egin dezakegu. Hori egiteko ez da ahalmen berezirik behar.



## PAULA VIGOR ETA LEO GAINZA

Haiek lau seme-alaba dituzte. Ikasketa-harrera egiten dute. Duela 11 urte hasi ziren, 3 urteko neskato bat etxean hartuz. Ordutik, ikasturtean zehar Ekuatore-Gineako neska dute etxean, irailetik garagartzarora arte. Garagartzaroko azken egunean ikasle txartela irauungi egiten da eta Ekuatore-Gineako umezurztegira bueltatu behar du. Han uda ematen du. Duela 5 urte larrialdi harrera-familia bihurtzea erabaki zuten eta ordutik 13 ume pasa dira haien etxetik.

Alfredo Alvaro Igoa ETXARREN

### Aurretik ezagutzen zenuten harrera-familiarik?

Ez. Ekuatore-Gineako haurrendako harrera-familiak behar zirela zioen egunkari-iragarkia ikusi genuelako hasi ginen. Duela 11 urte izan zen, 3 urteko neskato bat ekarri genuen uda pasatzera. Gaixo etorri zen. Hor hasi ginen pentsatzen uda baino gehiago irauungi lukeen harrera egitearena, neskatoak zituen arazo fisikoez osatzeko. Ikasgetengatik aldi baterako egonaldia zegoen. Harrera mota honek haurrei ikasteko aukera ematen die. Aldi berean, jakina, familia bat izateko aukera ematen diegu, umezurztegitik heldu direlako. Hemen ez badaude umezurztegian daude. Espainiako legediak ez du uzten haurrak urte guztia hemen egotea. Udan euren herrialdera itzuli beharra dute, "errotze" kontuagatik.

### Zergatik zarete harrera-familia?

Laguntzeko eta emateko kezka genuen. 3 eta 12 urte arteko lau seme-alaba genituen. Haurrek gaur egun dena dute. Eredua eman eta adierazi behar zaie garrantzitsuena ez dela materiala, horrela hezi nahi genituen gure seme-alabak. Azalduz egotera zailak bizi dituzten haurrak badaudela, gurasorik ez dutenak, erakunde batean bizi direnak... Eta haurrak asko gustatzen zitzaizkigunez, laguntzeko modua haien alde bustitzea zela uste genuen.

### Zer eskatzen du harrera-familia izateak?

Neskarekin 11 urte daramatzagu. Joaten denean dokumentazioa zerotik berritu beharra dago, sekula hona etorri izan ez balitz bezala tramitatu behar ditugu agiriak. Ez da berritze bat. Horrek kezka sortzen du. Uneren batean arazo larri bat egotea, ezin dela etorri... Batzuetan atsekabe asko dira. Neska 3 urteetatik dago gurekin eta alaba bat da, beste lauren moduan.

### Eta zer ematen du?



Arakilgo Egunean Paula eta Leo omendu zituen udalak. MIGUEL ANGEL LAPLANA

## "ZU UMETXO HORREN ALDE ZERBAIT ONA EGITEN ARI ZARA. ALTERNATIBA HARRERA ZENTROA DA"

Poz handia. Afrika ezagutzea ekarri digu. Nik oso gustuko dut. Ni urtero hilabetez umezurztegira joaten naiz, hango umeekin egotera. Zoragarria den beste mundu baterako sarbidea eman dit. Neskatoa gozamen da. Handia denean medikua izan eta bere herrialdera laguntzera joan nahi du. Esaten dituen horiek poz handia ematen dute. Duen aukeraz jabetzen ari da eta baliatzen ari da. Guretako hori oso polita da. Guri, oraintxe, zazpi seme-alaba izatea... lan fisikoa bada, baina garrantzitsuagoa da ematen duen poztasun guztia.

### Badago harrera-familiak babesten edo laguntzen duen ezer?

Atzerriko haurren harreraren ez du inork laguntzen. Dena familiaren kontu da. Ekuatore-Gineako haurrak ezin dira adoptatu. Sonagek, Solidaridad Na-

varra con Guinea Ecuatorial, gobernuz kanpoko erakundeak ekartzen du eta hemen dagoen bitartean haren zaintza gure ardura da. Osasun aseguruia izan behar dugu. Notarioarenean sinatu behar dugu ikasle txartelaren aldia bukatzean neska bere herrialdera bueltatuko dela. Ezin dugu ez bekarik ezta laguntzarik eskatu. Administrazioaren aurrean ez da familiako parte. Bertako haurren harrera egitean Nafarroako Gobernuak laguntza ematen du.

### Ikasketa-harreraren eskarmentua izanda, bertako haurren harrera egitea erabaki zenuten.

Familia egonkorra gara, hango umeak lagundu baditzaiegu, urtean zehar bertakoak zergatik ez? Duela bost urte gu izan ginen larrialdi-harrera egin zuen aurreneko familia.

### Zergatik larrialdi-harrera?

Ni ume txikiak liluratsen naute. Ume txikiak aritzeko trebeago sentitzen naiz. Niri, gainera, Afrikara hilabete batez joatea gustatzen zait. Eta aldi baterako harrera bagenu ezin izanen nuke umezurztegira joan. Horregatik egin genuen hilabeteetakoak diren harrera horien alde. Bai-

na batzuetan luzatu egiten dira eta hilabete asko izaten dira. Gurekin denbora gehien izan dugun umetxoa 11 hilabete egon zen. Kasu bakoitza mundu bat da. Asko aztertu behar da eta umetxoarendako konponbide onena zein den begiratu behar da. Azkenean, denbora pasatzen da eta harrera-aldiak luzatu egiten dira.

### Zer moduz etxean?

Oso ongi. Bat izan eta joaten denean, kabia hutsik sumatzen dugu. Harrera bukatzean mingarria da, baina trago txar hori pasatu eta onarekin gelditzen gara. Eta beste umetxo berri bat dagoela esanez eta gure onera bueltatu garen galdetzen duen telefono deiarenean zain gelditzen gara. Zeren dolu-aldia pasa beharra dago. Batzuetan gehiago kostatzen da, besteetan gutxiago. Batzuetan ume bat joan eta egunetara beste bat dugu. Beste batzuetan hilabeteak egon gara umetxorik gabe. Hori seinale ona da, umetxo bakar batek ere horren beharrik ez duen seinale. Gaur egun bi ume ditugu, benetan larrialdi harrera-familia premia handia dagoelako.

### Irakurleari zer esanen zenuke?

Benetan pentsa dezala. Jende askok egin dezake. Gu ongi daramagula, nork bere gain hartu dezakeen gauza bat dela, oso atsegingarria dela ikusten dutenean esaten dute: nik eginen nuke, baina ez dut balio zeren kentzen badidate... Ez dizute kentzen. Zu umetxo horren alde zerbait ona egiten ari zara. Alternatiba, harrera-zentro bat da. Gainera, umetxoak motxila ederra eramaten du berarekin. Jende askok seriotasunez pentsatzekotan denak soilik umea kentzeko uneari erreparatzen dio. Ez da soilik horretan pentsatu behar. Jakina, gaizki pasatzen da. Bilatuko diote amonaren bat, izeba-osabaren batzuk edo adoptatu eginen dute. Umetxo horren bizi guztirako etorkizun egonkor bat bilatu dute. Ez da harrera-zentro batean egonen, maite eta zaintzen duen familia batean baizik. Gaizki iristen dira eta nola garatzen doazen ikusten duzu. Umetxoek aurrerapen handiak egiten dituzte harrera-familian. Ume aktiboak, alaiak ikusten dituzu. Oso polita eta esker onekoa da. Azkenean, esperientziaren alde positiboari erreparatzen zaio.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Nolakoa da harrera prozesua?

- **1** Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzarekin harremanetan jarri informazioa eskuratzeko edota programan parte hartzea eskatzeko: 848 421 210 edo [familiasdeacogida@navarra.es](mailto:familiasdeacogida@navarra.es).
- **2** Informazio-elkarrizketa batera joan programa eta balorazio-prozesua ezagutzeko.
- **3** Familiak eta pertsonak prestakuntza-saioetara joan daitezke talde murriztuetan; harreraren zailtasunei eta inplikazioei buruzko hausnarketa egiten da.
- **4** Balorazio psikosoziala, baldintza fisikoak, psikikoak eta sozialak ez ezik, hartzaile izateko motibazioa eta dituzten ezaugarriak ere ebaluatzeko, eskaintzaren baldintzak zehazte aldera.
- **5** Etxebizitza eta inguruneak eskaintzen dituen edukiera eta bizigarritasun-baldintzak ezagutzeko bisita..
- **6** Familia-harrerarako egokitasuna positibotzat jotzen bada, familia familien zorroan sartzen da, harik eta haurra familia horretan sartzea egokitu arte.
- **7** Adingabea eta harrera-familia egokitzeko denboraldia: bisitak, asteburuko topaketak, eskolako oporrak eta eguneroko elkarbizitza harrera formalizatu arte.
- **8** Harrera-familia eratzea eta bizikidetzat hasia.
- **9** Akonpainamendua. Nafarroako Gobernuo Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzak, diziplina anitzeko talde teknikoaren bitartez segimendua egiten du.
- **10** Harrera-familiaren harrera hainbat arazoirengatik eten daiteke



ASTEKOA

ANA ARRAIZA

## Eskerrik asko!

Irakurtzen ari zareten ale hau Guaixe oporretara joan aurrekoa duzue, horrela iragarri zuen aurreko astean. Bada, neuk ere "oporrak" hartuko ditut ale honekin batera. Uda garaia da eta eguneroko kezka albo batera utzi eta gure denbora zertan erabiliko dugun pentsatzea izanen dut buruhausterik handiena, ez ordulari ez ordutegi....

Orain atseden hartzeko ueña iritsi da. Urtean zeharreko lan eta zereginak eten eta ardurak albo batera utzi gabe, familiarekin, lagunekin, ezagunekin, ezagutuko ditugunekin... ongi pasatzeko eta disfrutatzekeo ueña. Atseden tarte honetan gozatuko ditugu ere lakuntzarrontzat horren berezia den Lakuntzako Pertza eguna eta ondoren etorriko diren herriko festak. Haur, gazte nahiz heldu, errespetuz, lasai eta aske ibiliko garela pentsatu nahi dut eta hala espero dut.

Ezin dut aipatu gabe utzi, ordea, hain maitatua eta desiratua den astekari honetan idazten aritu naizela kurtso honetan zehar

## EGUNEROKO KEZKAK ALBO BATERA UTZI ETA GURE DENBORA ZERTAN ERABILIKO DUGUN PENTSATZEA IZANEN DUT BURUHAUSTERIK HANDIENA

zenbait kolaborazioren bidez. Horrelakorik sekula egin gabea nintzen, baina aukera eskaini zidatenean, kezka eta zalantza dantzan nituen arren, zenbait kontu aireeratzekeo modu egokia zela iruditu zitzaidan. Iritzien atal hau jende dextentek irakurtzen duzuela ohartu naiz, idatzitakoa irakurri eta aipatu didazuenak ez zarete gutxi izan eta. Modu eta leku beretik

eman nahi dizkizuet eskerrik beroenak jarraitu nauzuenoi.

Datorren kurtsoan asmo eta lan berrietan murgilduko naiz ilusio handiz; beraz, nire iritzirik ez duzue hemen aurkituko, baina jakin badakizue non nagoen. Plazera izan da. Eskerrik asko eta hurren arte!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Gutuna helaraztekeo bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## GUTUNA

### Nafarroa Oinezen, zu lehendabizi

**ENEIDA CARREÑO MUNDIÑANO**

IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

Udazken koloretan jaso genuen lekukoa eta udarako gau luzeetan gaude. Ordutik hamaika kontu eta guztietan, oztopen gaintetik, zu lehendabizi. Eskertzea jendarte onekoa omen, bihotz onekoa omen. Horretara gator lerro hauekin. Zu, guraso kooperatibista, irakasle, langile, laguntzaile, kolaboratzaile, ikasle, Nafarroa Oinezen eta Ikastolaren lagun, zaretanak eta zinetenak, zu eta beti zu, ondoan zaitugulako, batzuetan ozen eta beste batzuetan isil. Herria eta ikastola proiektua bizirik mantentzeko beti prest eta beharrezko zaitugulako. Ehunka proiektu, pedagogikoak, gizartekoak, herrigintzakoak...hor zaudelako beti, zu. Auzolanaren bitartez bizirik gaudela erakutsi dugu. Bihotz-bihotzez mila esker eta besarkada bat guztiondako.

Urriaren 21ean Altsasu BIZIrik dagoela erakutsiko dugu, badator euskararen haize zirimola. Oporraldiaren ondoren berriz lan egitea dagokigu, izan ardi gurgildun, izan erbi geldo edo haritz adar oker. Animatu, zuretako txokoa aurkituko duzu. Izena eman eta auzolanaren bitartez herria egin dezagun, euskaraz bizi nahi dugulako, hezkuntza propioa nahi dugulako, gure proiektuak aurrera eraman nahi ditugulako, gure herriko

haurrak etorkizuna direlako. Eragiozu!

Bizi Nafarroa Oinez 2018 eta biziara.

### Altsasuko Alkateari eskutitz irekia AHTri buruz

**ARTURO CARREÑO PARRAS, BLANCA ESTHER ARREGUI MENDIA ETA MARTÍN JOSÉ CELAYA GARCÍA**

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Javier Ollo jaun agurgarriari: AHT-Gelditu!-k antolatuta eta Sakana Trenaren Alde plataformak lagunduta bizikleta-martxa egin da Martzillatik Altsasura. Hori baliatuta, Sakana Trenaren Aldeko plataformak gutun irekia zuzentzen dio Javier Ollo Altsasuko Udaleko alkate jaunari.

Otsailaren 14ko Altsasuko Udalaren bilkuran, Abiadura Handiko Trenaren gaia aztertuta, Geroa Bairen mozioa onartu zen. Mozio horretan, De la Sernaren proiektuarekin bat etorriz, prestazio handiko errei bikoitzeko plataforma berri baten apustua egiten da, zeinek ibilbide erdiko eta luzeko pertsonen garraiorako eta merkantziendako balioko duen, Europako Oinarriko Sarearen estandarrak betez. Hala ere, logistikan aditutako guztiek onesten dute Abiadura Handia eta merkantzien garraioa bateraezinak direla, abiadura handiak eskatzen dituen baldintza teknikoengatik.

Beste aldetik, Europako Kontuen Auzitegiak txosten kritikoa eta zorrotza egin du Europari eta, bereziki,

Espainiako Estatuan garatzen ari den Abiadura Handiko ereduarekiko. Txosten horren arabera, dirutza xahuketa itzela (oso errentabilitate eskasa, gaitzuzkoak...), plangintza kaskarrekoa (erabiltzaile gutxi eta abiadura eskasa), eta irizpide politikoei jarraikiz eraikia (beste era batera esanda, elitismoa eta ustelkeria). Gainera, aski ezaguna da, AHTa Estatuan eragiten ari den milaka milioiko zorra.

Horregatik alkate jaunari eskatzen diogu:

1- Eredu hori justifikatzeko erabilitako garapen ekonomikoa, lurralde kohesioa, ekologia, eta abar bezalako hitz-hutsalak baztertuta, Altsasurako, Sakanarako eta, oro har, Nafarroarako garapen ekonomikoa eta soziala bermatuko dituen trenaren alde argi egin dezala.

2- Egungo trenaren garapena bere gaitasun guztian susta dezala (bikoitzeta, hirugarren erreia, trazaduraren hobekuntza...) maila altuko zerbitzuak lortzeko pertsonendako eta merkantzien garraioarendako.

3- Nafarroako Gobernuaren eta Estatuaren aurrean aldarrika dezala Altsasuko Nafarroako trenaren historian izan duen komunikazio gune eta ardatzaren eginkizuna, eskatuz bere hornidura hobetzea eta zerbitzuak areagotzea.

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administratzailea:**

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**

Idoia Artieda Larrazza

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**

Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**

Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**

Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILA:**

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**





Sakanako Tratu onen sarearen bilera. ARTXIBOA

## Familiendako laguntza zerbitzua indartuta

Babesgabetasun egoeran dauden haur eta familiak laguntzeko lantaldea sortu da Nafarroa iparraldean. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako teknikariak lagundu eta haiekin elkarlanean ariko dira. Gobernuarendako "inbertsio sozial handia da"

### SAKANA

"Osasun etxeko familia-medikuak gaixoak sendatzen ditu. Baina ebakuntzak egiteko tresnarik ez du eta horiek Iruñean egiten dira. Gizarte Zerbitzuetan antzekoa gertatzen da. Familiaren esku-hartze programan antzekoa gertatzen da, kasuen larritasunaren arabera batzuen ardura hemen hartzen dugu eta beste batzuen, egoera larriagoak, Iruñean, hemen tresnarik ez dugulako". Konparazioa Lucia Gonzalez de Pedrosorena da, Etxarriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko prebentzio teknikariarena.

Gonzalez de Pedrosok azaldu digunez, Gizarte Zerbitzuetako

familia esku-hartze programako teknikariek beti izan dute hurremana Nafarroako Gobernuaren Ongizate Departamentuarekin. Lantalde berriarekin ibarreko eta Iruñeko zerbitzuen arteko elkarlana izanen da. Taldeak Sakanako familia arloko profesionali aholkua emanen die, lan karga handia badute lagunduko diete eta kasu batzuk elkarlanean landuko dituzte.

### Lantalde berria

Eskubide Sozialetako Departamentuak, Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bitartez, Haurrei eta Nerabeei Arreta emateko lantaldea jarri du martxan aste

honetan, eta Iruñerriko eta Nafarroaren iparraldeko eta ipar-ekialdeko haurrak, nerabeak eta familiak artatuko ditu, Sakana barne.

Diziplina anitzeko lantaldea 12 profesionalak osatzen dute. Haiek psikologian, gizarte-lanean, hezkuntzan eta gizarteratzean trebatuta daude. Lantalde horrek artatuko ditu, batetik, 18 urtetik beherako haurren eta nerabeen artean egon daitezkeen babesgabetasun-egoerak aztertu eta baloratuko ditu. Eta gauza bera babesgabetasun-egoeran dauden eta oinarrizko zerbitzuek arreta espezializatua emateko baliabiderik ez dutenean ere. Departamentuaren kalkuluen arabera

eskualde osoan 180-200 familia eta 250-300 adingabe izan daitezke artatuko dituztenak. Babesgabetasunaren tipologiaren, larritasunaren eta arriskuaren arabera izango da arreta, bai eta babesgabetasunetik ateratzeko aurreikuspenaren eta kolektibo horiek dituzten babesfaktoreen arabera ere.

Eskubide Sozialetako lehen-dakariorde Miguel Laparrak esan duenez, "zerbitzu berriak funtsezko inbertsio sozial handia dakar berarekin; orain, prebentzioak saihestuko du haur horiek, etorkizunean, larritasun eta gatazka handiagoko egoeretan egotea".

### Helburuak

Lan taldeak gizarte-zerbitzuei eta haien eragin-eremuko gizarte-, komunitate-, hezkuntza- eta osasun-eragileei lagunduko die prebentzioan, hautemate goiztiarrean, ikerketan, balorazioan eta esku-hartzean, eta haurrak babesteko lan-sare bat eta haien eremuko haur zaurgarrien beharrrak asetzeko behar diren baliabideak sortzen. Gainera, laguntza emanen dio Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari zaurgarritasun handieneko egoerak hautematen eta premia artatzen babesgabetasuna baloratzeko prozesuetan, hirugarren mailako prebentzioan eta kalteak konpontzean esku hartuz.

Zerbitzua Pauma erakundeak kudeatuko du, eta Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzak bideratuta jaso ahal izanen da. Zerbitzuaren kontratua 4 urtez egonen da indarrean, 2022ra arte. Urteko 610.977 euroko aurrekontua du.

## Gaztelania eta matematika ikastaroak prest

Gutxieneko ezagutzak egiaztatzeak beste ikastaro batzuetarako sarbidea ematen du

### SAKANA

Pertsona Helduendako Hezkuntzak gaztelania eta matematikan 2. mailako kompetentziak eskuratzeko ikastaroak antolatu ditu Altsasun. Lehen irailaren 20tik ilbeltzaren 31ra izanen da, astearteetan eta ostegunetan, 12:15etik 14:15era. Bigarrena, astelehenetan eta ostiraletan izanen da, 11:00etatik 13:00etara, irailaren 21etik otsailaren 1era. Dagoeneko enplegu bulegoan izena eman daiteke.


Kompetentzia horiek gutxieneko eskakizuna dira zenbait espezializatetan profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko. Halakoak lortzeko Nafar Lansarek 33 ikastaro antolatu ditu foru geografian barna, beti ere, langabezian dauden pertsonen zuzenduta. Prestakuntza saio horiek urtearen bigarren erdian egingen dira eta izen ematea dagoeneko zabalik dago. Horretarako, enplegu bulegotik pasa beharra dago. Saio horiei buruzko informazioa [www.formacion.info](http://www.formacion.info) web orrian opatu daiteke.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak atzo jakinarazi zuenez, Nafarroan langabezia jaitsi egingen garilean, baina Altsasuko enplegu bulegoan % 4,8ko hazkundera izan zuen.

## Esataria: Mainer Gaurko gaiak:

- Ikasle Abertzaleak-en Eskola ibiltaria
- Iñigo Muñoaren "Los muertos vivos"
- Sakanakako asteko erreposoa

Irailaren 7ra arte  
geldialdia egingo dugu  
**OPORRETAN!**



Ostiralero 9:30ean  
**SAIOA**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM  
**beleixe**  
guaixe.eus-en ON LINE

## SAKANA

Naturaren eta gizakiaren arteko elkar-ekintzaren emaitza da paisaia. Hala dago jasoa Europako Paisaiarako Hitzarmenean. Eta garapen baliabide garrantzitsua aitortzen die paisaiei eta beraiei lotutako balioei; eta lurralde antolamendu politika egoki batek paisaia kontuan hartu behar duela dio. Hitzarmenaren orientazioak segituz foru administrazioak Nafarroako Paisaia Estrategia egin beharra du. Beraz, Nafarroako lurralde eta hirigintza antolaketek paisaiaren aldaia kontuan hartu beharko dute.

Nafarroa Atlantikoko Paisaia-dokumentua egiteko Nasuvinsa-Lursarea enpresa publikoak parte-hartze prozesua abiatu du. Garilaren 16an parte hartze foroa egin zen Arbizuko Utzugane zentroan. Sei sakandar elkartu ziren eta hainbat dinamikaren bidez paisaiari dagokion arloan zer nahi luketen adierazi zuten. Etor-kizunean ibarra dagoen bezala mantendu nahi zutela adierazi zuten, azpiegitura korredorerik gabe. Horretarako, besteak beste, lehen sektorea bultzatzea eta tren soziala egitea proposatu zuten.



Sakanaren ikuspegia Ergatik. ARTXIBOA

## Etorkizuneko paisaia nolakoa eta norendako?

Nafarroa Atlantikoari dagokion Lurraldearen Antolamenduko Planaren (LAP 2) Paisaia-dokumentua egiteko prozesuaren barruan inkesta prestatu dute. Haren bidez paisaiaren ikuspegi soziala identifikatu nahi dute. Inkesta betetzera animatu dute

## Galdetegia

Parte hartze prozesuak segida du eta sakandar guztiak inkesta betetzera deitu dituzte. Ezinbestekotarako jotzen baitute herritarrek "paisaiaren kudeaketan inplikatzeko, paisaiarekiko duten hautematea ezagutzea eta beraien asmoak ezagutzea". Inkesta anonimoa da, baina emaitzen analisirako erabiliko diren datu pertsonal batzuk eskatzen ditu (adina, bizitoki den eskualdea...). Ondoren paisaiez betetako bi argazki sorta aurkeztzen dira. Paisaia adierazgarri horiek baloratzea eskatzen du inkestak gogokoen eta batere gogoen ez diren argazkiak seinalatuz. Ondoren paisaiaren helburuen lehenespena egiteko eskatuko dute eta, azkenik, gogoko paisaiak zein diren aipatzeko eskatzen da.

## Web-inkesta

consulta.paisajeyterritorio.com/pot2-datos-personales.php?ek

**ARAIA-ASPARRENA  
UMORE  
ANTZERKIAREN  
XXV. JAIALDIA  
ABUZTUAREN 11-15  
www.jaraialdia.com**

SARREREN ALDEZ AURRETIK SALMENTA

ARAIA: BENE TABERNA  
VITORIA-GASTEIZ: CASA DEL LIBRO. ARCA KALEA, 11  
AGURAIN: TURISMO BULEGOA. TEL.: 945 302 931  
INFO. TEL.: 688 812 803

Antolatzen du



Dirulaguntza ematen du

Laguntzen dute  
Colaboran

Babesle

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava



# Epaiketa baliogabetzea eskatu dute abokatuek

Epaia jarritako helegitean Fiskaltzak terrorismo delitua kontuan hartzea eskatzen zuen. Zortzi altsasuarren defentsek, berriz, epaiketa baliogabetzea eskatzen dute, Espejel epailea errekusatu behar lukeelako. Zortzien absoluzioa eskatu dute ere

## ALTSASU

Altsasuko auziko zortzi auzipetuen defentsek epaiari apelazioak aurkeztu dizkiote eta beste epaiketa bat eskatzen dute. Jaione Carrera, Jose Luis Galan, Eva Gimbernat, Amaia Izko, Jaime Montero eta Manuel Olle Sese abokatuek uste dute, batetik, epaiketan auzipetuen eskubideen bermerik ez zela izan. Bestetik, diote proben balorazioan akatsa egin zuela epaimahaiak, epaiketan aurkeztutako probek, bideoak eta medikuek, forentseek eta lekukoek kontatutakoak kontuan hartu ez zituelako. Horri lotuta proba guztiak onartu ez izana ere salatzen dute abokatuek. Lau salatzailiek zortzi auzipetuak identifikatu zituztela-eta, abokatuek taldeko identifikazio-saioen kontra egin dute ere.

Azkenik, Altsasuko auziko epaia epaiketarik izan ez balitz bezala idatzia dagoela diote zortzi altsasuarren abokatuek, alde aurretik idatzia balego bezala. Akusatuak zigortzeko probarik ez dagoela eta salatzailen lekukotzak besterik ez zituztela kontuan izan gaztigatu dute. Abokatuek gaineratu dute ezin direla gorrotzko eta nagusitasun-egoeraz abusatze larrigarriak aplikatu.



Abokatuen prentsaurrekoa. ARTXIBOA

## Espetxe aldaketa eskaera

Madrilgo espetxeetan preso dauden zazpi altsasuarrek garagarriaren hasieran FIES fitxategietatik atera zituzten epaiak auzian terrorismorik ikusi ez zuelako. Orain Iruñeko edo Zabalako kartzeletara leku-aldatzeko eskatu dute. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 628 egun daramatzate preso. Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek, berriz, azkenekoz atxilotu zituztenetik 60. 2016ko udazkenean beste 37 egun egon ziren preso.

## Auzibidearen pausoak

- Espainiako Auzitegi Nazionaleko 1. sekzioa. Epaia, ekainaren 1ean.
- Espainiako Auzitegi Nazionaleko Apelazio Aretoa. Apelazioak eginak.
- Auzitegi Gorena.
- Konstituzio Auzitegia
- Europako Auzitegia.

## Pentsio duinak aldarrikatzen segituko dute agorriean

KPIa aurreikusi baino gehiago igoko dela eta pentsiodunek erosahalmena galduko dutela diote

## ALTSASU

Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataformak deituta, pentsio duinen aldeko kontzentrazioan 60 pertsona elkartu ziren Zumalakarregi plazan. 1.200 euroko gutxieneko soldata, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatu zuten. Horrekin batera, pentsioak % 1,6 eguneratzeak pentsiodunen erosahalmena ez duela bermatzen gaztigatu zuten: "Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) % 1,6 gaintitzen badu pentsiodun gehienok erosahalmena galduko dugu. Gero eta analista gehiagok diote aurtengo KPIaren batz bestekoa % 1,8koa izanen dela". Gobernuak urte akaberan aurreikuspenak berrikusteko asmorik ez duela salatu zuten.

Azkenik, elkarteetatik pentsio duinen aldeko kontzentrazioetan



Pentsio duinak eskatzen. J. P. HIGUERO

parte hartzera deitu zuten. Udan zehar astero tokiz aldatuko da. Hala, heldu den astelehenean udaletxe parean egingen da eta, hurrengoan, Zumalakarregi plazan. Tokiak txandakatuz joanen dira. Baina hitzordua bera izanen da bi tokietan, 19:30etan.

## Sortuk esker ona azaldu zion Camposi haren agurrean

Etxarri Aranazko alkate izandakoa despeditzeko ekitaldian Manolo Campos Castresana alkate intsumitua zela gogoratu zuten. Baita euskal presoan urrutzea familian ezagutu zuela eta beti haien eskubideen alde egin zuela. Musika taldeen entsegu gela berak utzi zuela ere gogoratu zuten. Sortukoek familiari oroigarria eman zioten.



Musikari desberdinek parte hartu zuten.

OGI BERRI  
APUR LAKUNTZA

Ongi pasa festetan!

Mikel Arregi 7 · Lakuntza  
669 426 335  
iratxxo@hotmail.com

DERRY CABERIA  
SAOR DOIRE  
ETXARRI ARANATZ

goizeko 7:00etatik  
sukaldea zabalik  
festetako menua  
ogitartekoak ezin hobekak  
kriston giroa  
Ongi pasa jaietan

948 461 703

ilaia  
Ileapaindegia  
948 56 70 71  
ilaia26@hotmail.com

Lizardi  
AMABILIAZ ZERBITZUA

Amaia Benjumea  
Ongi pasa festetan!  
649 444 018  
Nagusia 12, 1.B  
Etxarri Aranatz

TX  
Txartel  
Imprenta - Papeleria

INPRIMATZE DIGITALA  
KOPIA-DENDA KO ZERBITZUA  
NEURRI HANDIKO INPRIMATZEAK

www.txartel.net  
948 564 002  
txartel@txartel.net



# Kale Nagusiko lanak aurki hasiko dira

Sareak eta zorua berritzeko lanek urte erdia iraunen dute. Eguneroko bizitza egin ahal izateko kalea ez da trafikora moztuko. Lakuntzako industrialdetik ateratzen diren kamioiak etorkizunean herri erditik ez pasatzea nahi luke udalak

## ARBIZU

Arbizuko Udalaren aurtengo aurrekontua 1.916.417 eurokoa da. Eta aurreko urtearekin alderatuta gora egin badu Kale Nagusiko lanengatik izan da. Karmele Marañon Chasco alkateak azaldu digunez, “Tokiko Azpiegitura Planeko diru-laguntza deialdian Kale Nagusiko lana lehena gelditu zen, alde handiz”. Arrazoia eman digu ere: “ur-ihes handiak ditugu. Gazez ur pila galtzen da. Ur biltegitik ateratzen diren 10 litrotatik 4 ere ez dira fakturatzen”. Sakanako Mankomunitateak urez hornitzen dituen herrietatik ur gehien galtzen duen herria da Arbizu. Sare berriarekin arazoari konponbidea emanen zaio.

Kale Nagusiko lanek araztegiaren sortzen den arazoari konponbidea emanen diote ere. Euri-urak eta etxeetako ur beltzak jasotzeko sare bakarra dago Arbizun eta bi beharko lukete. Eta hala egingen dute. Hala, araztegiaren arazorik ez sortzeaz aparte, etxe askotan usain txarrik ez izatea lortuko da ere.

## Lanak

Marañonek jakinarazi digunez, lanak lehenbailehen hasi nahi dituzte, kalea zulatu behar denez, eguraldi ona baliatzeko. Agorri-



Lanek uraren arazoari konponbidea emanen diote.

laren hasieran hasi eta lanak 6 hilabeteetan egingen dituztela jakinarazi dute enpresa hartzailerek. Erki construcciones SLk eta Construcciones Noveleta SLUk egingen dituzte 648.157,89 euroren truke. Nafarroako Gobernuaren laguntza dute lanek. Gainera, ur eta saneamendu sareen kostua Sakanako Mankomunitateak bere gain hartuko ditu.

Gainontzeko lanak, euri-urak biltzen dituen sarea eta kalearen zorua berritzea, Arbizuko Udalak pagatuko ditu. Alkateak

jakinarazi digunez, argindar eta telefono enprekin negoziatzen ari dira haien sareak lurpera ditzaten. Eta gas konpainiarekin ere bai, sarea egokitu eta zabal dezan. Lanak zatika egingen dira. Hala, kalearen ezkerreko aldean lanean dauden bitartean trafikoak eskuin aldetik pasatzeko aukera izanen du. Eta, alderantziz. Horrela, herritarrek “etxerako sarbidea izanen dute eta eguneroko bizitza mantenduko dute”.

Marañonek argitu digunez, kaleko aparkalekuak antolatu egin dituzte, oinezkoendako es-

pazio gehiago izanen dira eta trafikoarendako galtzada estuagoa izanen da, “ibilgailuen abiadura murrizteko”. Lakuntzako industrialdetik ateratzen diren kamioi ugari Arbizu erditik pasatzen da autobiarara ateratzeko. Udal agintariak etorkizunean ez lukete halakorik nahiko eta trafiko astuna industrialdetik bideratzea nahi lukete.

Udal agintarien asmoa da lanek sortutako porlan hondakinak txikitzea eta horiek dermioko bideak konpontzeko erabiltzea. Horretarako, Nafarroako Gobernuari baimena eskatu diote eta hura jaso zain daude Arbizun.

## Beste lan batzuk

Arbizuko Udalak igogailua jarri du eraikin publiko batean. “Kristalezko dorre bat da eta Aldabide elkartera edo gainean dagoen ikastolaren gelara sartzea edo onorendako irisgarria izanen da”. Udalak, bestalde, Nafarroako Gobernuari mediku kontsultategian lanak egiteko diru-laguntza eskatu zion, baina ez diote onartu. “Gaur egun dagoen komunean ez da gurgildun aulkirik sartzen eta irisgarria izatea nahi genuen. Eta gauza bera kontsultarako sarbidea. Hurrengo urtean berriro eskatuko dugu”.

Eskola berria hartuko duten lur-eremuaren urbanizazio lanak despedita daude, aspaldi. Hezkuntza Departamentuak aginduta hasiak dira ikastetxe berria eraikitzen.



Udaletxearen zehar aldean jarri dute.

## Arakilgo udaletxeko igogailuak hilabete darama martxan

Irurtzongo festetan “zer gerta ere” itxita egon bazen ere, hilabete martxan darama Arakilgo udaletxeko igogailuak. Aralar kalean dagoen aparkalekutik osasun etxera eta udaletxeko sarrerara igotzeko aukera du edozeinek. Eta, jakina, Arakilgo udaletxe barruan gora eta behera ibiltzeko ere. Igogailua egiteko udaletxeko bi leiho kendu zituzten eta horrek Arakilgo udaletxean iluntasuna sortzen zuenez, bi leiho berri egin zituzten, joan den astean jarri zituztenak. Erabilera bikoitz horregatik Arakilgo eta Irurtzongo udalek aukera hitzarmena sinatu dute. Lanek 112.575 euroko inbertsioa eskatu dute, baina 61.065 eurokoa da laguntza.



**EROSKI bidaiak**  
Ametsetan? Egizu logan!

Zubetzia, 1 (Altsasu)  
948 564 335

### Altsasuko festak

**EROSKI BIDAIAKekin**

<b>Cambrils</b>	Irailaren 13tik-17ra. Olimar 3* Aphotela. Mantendu osoa.	<b>177€-tik</b>
<b>Peñíscola</b>	Irailaren 13tik-17ra. Peñíscola Plaza 4* Hotela. Mantendu osoa	<b>261€-tik</b>
<b>Menorca</b>	Irailaren 13tik-20ra. Bilbotik hegazkina. Apartamentua. Egonaldia + hegazkina.	<b>442€-tik</b>
<b>Punta Cana</b>	Irailaren 13tik-20ra. Madrildik hegazkina. 4* Hotela. Dena barne.	<b>790€-tik</b>

\*Prezioa pertsonako gela bikoitzean. Iruzurraren aurkako Lege berria betez, bulego honek 2.499 euroz gaineko salmentetan ez ditu eskudirutan ordainketak onartuko. Kudeaketa gastu 8€. Kontsultatu datak eta gainerako baldintzak. Plaza kopuru mugatua. ENK 618.



**Igoa**  
orroindegia

**EZ-ETZA BETI DA EZ-ETZ**

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Aranatz



**iTYRRI EDER**  
JATETXEA TABERNA

948 461 530 · Larrañeta, 7 · Etxarri Aranatz

**Ongi pasa festetan**





Etxarriko monolitoa mustu ondorengo talde argazkia.

## Bizikletan, tren azkarraren kontra, tren sozialaren alde

AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako bizikleta martxak Abiadura Handiko Trenaren kontrako mezua zabaldu du

### SAKANA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako Martzilla eta Altsasu arteko martxa igandean despeditu zen. AHTak Nafarroan eginen lukeen ibilbidea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen tropelak. Aldi berean, herrietan geldialdiak egin zituzten, "biztanleak entzuteko eta kontra egotera bultzatzen gaituzten arrazoiak ezagutarazteko".

Antolatzaileek "mundua errentagarritasun bilakatu beharreko lehengaitzat jotzen duen ikusmoldea" salatu zuten, "lurraren eta gizakiaren arteko oreka txikitu eta pertsonak berak usiagarri edo baztergarri" bihurtzen dituelako. Lanak lau urtez geldirik egon ondoren Alesves eta Tafalla artean hasi daitezkeela nabarmendu zuten ere. Beste behin ere herrien eta herriarren zerbitzura egonen den tren soziala aldarrikatu zuten.

### Sakanan

Aldarrikapen tropela Oskiako harratetik sartu zen Sakanan, hirugarren etapari Irurtzunen despedida emateko. Hurrengo egunean Irurtzundik abiatu zen eta ibar guztia zeharkatu zuen. Igandea zela eta eguraldi ona zegoela baliatuta, goizean adin guztietako makina bat arakildarrek bat egin zuten AHTaren kontrako bizikleta martxarekin.

Etxarri Aranazko igerilekuaren ondoan AHTaren kontrako monolitoa mustu zuten. Irurtzungo, Arakilgo eta Etxarri Aranazko udal ordezkariak horren lekuko izan ziren. Aurrerakua dantzatu zuten. Sakana Trenaren Alde eta AHT Gelditu Ekarlaneko kideek eta udalen izenean Etxarri Aranazko ordezkariak, tren azkarraren kontrako jarrera berretsi eta ohiko trenaren aldeko konpromisoa aldarrikatu zuten.

# "Ikasleak antolatu eta borrokara batzea"

Asmo hori berretsi zuen Ikasle Abertzaleak-ek Eskola Ibiltariaren Altsasuko despedidan. Azken prestakuntzarako eta hausnarketarako saioen ondoren kontzertu eskaintza zabala izan zen, eta atsedendian ekitaldi nagusia

### SAKANA

Ikasle Abertzaleak-ek 30 urteko ibilbidean "kaleak astintzen, intsumitzen eta langile klasea antolatzen bulkatzen" aritu dela gaztigatu zuen. Sistemak askatasunik ez duela ematen eta aurre egitea guztien ardura dela nabarmendu zuen eta ikasleek "militantzia eredu berri baten isla" izan behar dutela esan zuten.

Azaldu zuten, "sistema kapitalistak gu itozteko dituen mekanismo guztien aurrean, egindakoaz ikasi eta gure praktika iraultzailea fintzen jarraitzen dugu". Horren eredu gisa Eskola Ibiltaria jarri zuen, "non gure harremanak indartzeko, esperientziez ikasteko eta hurrengo urteetan eman beharreko pausoez hausnartzeko elkartu garen". Gaineratu zuenez, "Euskal Herria irauliko duten militanteak sortzeko hautu irmoa" dute. Ikasleek "auto-antolakuntza eta botere propioa eraikitzen segitzen" dutela nabarmendu zuten.

### Aldarrikapenak

Euskal burgesiarekin Euskal Herria ez dutela askatuko ziurtatu zuten. Euskal Herri sozialista, feminista eta independentea aldarrikatu zuten, "gure baldintza politiko eta soziala



Ikasle Abertzaleak-ek bere burua "ikasle antolakunde iraultzailetzat" definitu zuen.

osoki aldatuko duen gizarte eredu bat eraikitzen gatz". Eta gehitu zuten, "sistemak sumiso eta geldi nahi gaituen honetan, maila lokala oinarria izanik, burgesiari erasotzeko gaitasuna garatzen jarraitu behar dugu". Horretarako, antolatuko diren dinamiketan ikasleak parte hartzea gonbidatu zituzten.

Baina haien jarduna ikasle mugimendura ez dela mugatu behar gaztigatu zuten. "Prozesu honetan ezinbestekoa izanen baita langile klaseko gainontze-ko sektoreekin elkarlana susta-

tzea. Langile batasunak izan behar du ondorioa".

Feminismoa osotasun baten baitan kokatu beharra aldarrikatu zuten, "kapitalismoan emakumezko langileen zapalkuntza bikoitza baita". Ikasle Abertzaleak-etik "genero auziaren abolizioa praktika iraultzaile komun batetik bideratuz, dei egiten diegu emakumezko guztiei borrokara batu daitezen". Emakumezkoen kontrako sexu-erasoak langile klasearen kontrako erasotzat jo zituzten.

Osorik: [www.guaxe.eus](http://www.guaxe.eus)

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"

**LAKUNTZAKO UDALA**

[www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus)  
[info@lakuntza.eus](mailto:info@lakuntza.eus)  
 tel. 948 576 015

**LaKuntzaileok**  
 HERRITARREN PARTE-HARTZE PLANA





Guztira 204.491 euro inbertituko dira. Ondarria industrialdea eta Dantzaleku kirol gune arteko bidean LED argiak jarriko dituzte.

## Udalak hainbat inbertsio egitea onartu du

Argiteriari publikoa hobetzeko lanak egingen dira Ondarria industrialdean, Dantzalekurako bidean eta hainbat kaletan. Azken horietan zoruaren konponketak egingen dira eta festetako egitaraua ere onartu da

### ALTSASU

Altsasuko Udalak makina bat inbertsio egitea onartu zuen joan den asteazkeneko bilkuran. Argiteriari lotutako inbertsioen artean daude: Ondarria industrialdeko eta Dantzaleku kirol gunerako bideko argiteria publikoko kableak eta haren kanalizazioa berritzea eta LED argiak jartzea Beikolarren, Ibarrean, Ameztián, Intxostian, Altsasu institutuan, Zubeztian, Beheko Bentan, Gurutzeko bidean eta Ondarria industrialdean. Lan horietara Altsasuko Udalak 73.692,32 euro bideratuko ditu. Aurreneko lanak egiteko udalak ez du inolako diru-laguntzarik. Bigarrena egiteko, ordea, Nafarroako Gobernuarena du. Haren deialditik kanpo gelditu zen Txunkai, Zumalakarregi plaza, Gurutze Saindua eta Foru plazako argiteria LED teknologiaz ordezkatzeko eta orain udalak Espainiako Gobernuari eskatu dio laguntza.

Herriko bost tokitan zoru asfaltoa zabalduz konponduko da eta horretarako 78.000 euro ditu Altsasuko Udalak. Honakoak dira aurten egingen diren lanak: Ondarria industrialdea (joan den urtean zoruaren zati bat berritu zen eta orain despeditu egingen da. Gainera, zutikako bide-seinaleak jarriko dira. 12.800 euro); institutuen arteko bidea (urtero zati bat berritzen da,

aurten 132 metro. 21.100 euro); Altsasu institutuko irakasleendako aparkaleku berrirainoko bidea (ikastetxearen atzeko aldeko patio bat aparkaleku egokituko dute aurki. 10.250 euro); Auzobide kalekoan haur eskola egiterakoan hondatu zen kale zatia konpontzea (12.112 euro) eta San Pedro zelai ondoan dagoen auto aparkalekua (jendea lokaztea eragozteko. 5.500 euro). Gainera, Gartzia Ximenez, San Juan eta Zelai kaleetako zutikako bide seinalez tapena berrituko da (16.250 euro).

### Beste inbertsio batzuk

Parte-hartze aurrekontuen bidez altsasuarrek erabaki zuten uda-

lak 20.000 euro karpa mugikor bat erostera bideratzea. Eta hala onartu zen azken bilkuran. Dantzalekuko kirol gunean 2010ean aldagela berriak egin ziren, baina filtrazioak daude. Udalak erabaki du lan haiek egin zituen enpresak jarritako bermea filtrazio horiek konpontzeko erabiltzea. 13.764,45 euro izanen dira.

Txiki Polita kaleko zoru konpontzeko eta Zelai kaleko zebra-bide goratuak berritzeko 11.235 euro izanen dira. 7.800 euro, berriz, Iortia kultur guneko soinu-ekipo berria eta kalean egingen diren ekitaldietarako soinu-ekipo eramangarria erosteko. Azkenik, Altsasuko Udalak 300 euroko ekarpena egingen dio Eusko Ikaskuntzari. Udalak erakunde horrekin 1995etik hitzarmena du eta hala berritu egingen da. Eusko Ikaskuntzak aurten mendea bete du eta bere sorreran, 1918an, Altsasuko Udalak parte hartu zuen.

### Festa egitaraua

Azken udal bilkuran aurtengo festa egitaraua onartu zen. Irailaren 13an, ostegunarekin, hasi eta 17an, astelehenarekin, despedituko dira festak. Herri galdeketa bidez festen hasiera data urtero egokitzea erabaki zenez geroztik aurreneko aldia da festa lehen bezala hasten direla, 13an.

Altsasuko Udalak festetarako kontratatutako musika taldeen artean daude Tximeleta, Orquesta London, Puro Relajo, Oihan Vegaren disko festa, Voces del Ebro jota kantariak edota Vendetta. Azken hori bere despedita bira egingen ari da eta horren barruan irailaren 15ean, larunbatean, 23:30ean Foru plazan ariko da.

## Etxarrin agur zibilak egiteko aukera arautu du udalak

Etxarri Aranazko Udalak lehen-dik ezkontza zibilak egiteko araudia zuen. Hura zabaldu egin du eta hildakoen aldeko agurrak edo omenaldi zibilak egiteko aukera ere izanen da udal erai-kinetan. Udalak hartutako erabaki hori jendaurrean irailaren 4ra arte dago, interesdunek espediente aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

Bestetik, udaletik jakinarazi digutenez, aurki hasiko dira Utzubar industrialdeko zoru berritu eta zuntz optikoa jartzeko lanak. Horretarako, 203.876 euro bideratuko dira. Inbertsioaren erdia Nafarroako Gobernuak pagatuko du eta gainontzekoa enpresek.

Azkenik, udalak auzonetxe aterpea erabiltzeko arauak onartu ditu. Gehienez gau bat pasa daiteke eta 29 pertsonen muga dago. 10 lagunetik gorako taldeei, tokia bermatzeko, erreserba egitea aholkatu diete. Horiek udaletxean egin behar dira.

## Aralarren eta Urbasa-Andian ikerketak egiteko deialdia

Bi mendi horietan zenbait landare eta animalia arriskuan daude. Habitat jakin horiek ikertu nahi ditu gobernauak. Batetik, Aralarko Malloak-eko eta Urbasa-Andiako haitzetako eta legarretako habitata. Haiek kudeatu eta jarraipena egiteko protokoloa egin nahi du. Bestetik, Aralarko haltzadien egoeraren diagnostia nahi du.

## Lan istripuan larri zaurituta

Langile batek lan-istripua izan zuen ostiralean Lizarragako portuan, begira-lekuaren parean, behean. Errepide mantenu lanak egingen ari zela garabia batetik 2,5 metroko altueratik erori zen eta buruan kolpe handia hartu zuen. Larrialdi zerbitzuek zauritutako 40 urteko gizona portu gainera eramane zuten, handik helikopteroz ospitalera eramateko.



@BOMBEROS\_NA



Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763



## Txondorretik tona erdi ikatz

Satrustegiarrek, hainbat arakildarren eta Biloriako Migel ikazkinaren laguntzaz, igandean txondorra desegin eta ikatza atera zuten. Lehenik lurra kendu zuten eta gero ikatza barreiatu zuten. Inker batzuk bazeuden oraindik eta erabat itzaltzeko ura bota zieten. Eta dena itzalita zegoela zakutan sartu zuten ikatz guztia. 48 bat zaku bete zituzten eta tona erdi ikatz baino zerbait gehiago lortu zuten. Egiteko horiek hainbat ikusleren jakin-mina piztu zuten.

Kontzeju-buru Igor Lanzek esan zigunez, "lortu dugun ikatza nahi duten Arakilgo kontzejuen artean banatuko dugu. Jakina, guretako gehiago geldituko da". Ikatzen festetako otamenak prestatzeko da.



IGOR LANZ

## Etxarrenen festei agur

Etxarrengo festak astelehenean bukatu ziren. Haien hasiera iragartzen zuen etxajua lehertu ondoren, joan den urtean eta aurten jaiotako umeei harrera egin eta festetako zapia jarri zieten. Herrian bizi diren June Zabaletaz eta Izaga Rubioz aparte, guraso etxarrendarrak dituzten Julen Legarrak, Oier Baleztenak, Elak eta Josek jaso zuten zapia.



JON ZABALETA



Errotain zalditegian izango dira bisitak. @ERROTAİN

## Egun batez aktore izateko aukera eskura

Bertako historia eta kultur ondarea hobeto ulertzeko bidea eman nahi zaie bisitariei

### SAKANA

Richard Lesterren esanetara Sean Conneryk eta Audrey Hepburnek Robinen eta Mariaren paperak jokatu zituzten izen bereko filmean 1976an. Filmean ikusten zen Sherwoodeko basoa Urbasa zen. Nafarroa bisitatzen duten pertsonak bikotearen pare ibiltzeko aukera dute *Egun batez aktore* bisita gidatuei esker. Gida profesionalak aholkatuta, norberaren aktore kasta probatzeko aukera ezin hobea da.

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak hiru antzetzoki eskaintzen ditu aukeran: Bardeako, Zugarramurdiko lezea eta Urbasako eta Urdiaingo errota. Azken horietan Errotain zalditegikoak arduratzen dira bisita gidatuak egiteaz. Bilgunea Urdiaingo errotan izanen da eta grabaketarako gutxienez hiru pertsona behar dira. Garilaren 22rako egin zuten aurreneko

hitzordua eta grabazioa agorri-laren 26an eta irailaren 2an errepikatuko da, igandez. Plaza mugatuak dira eta alde zurretik erreserba egitea komeni da. Pertsonako 10 euro ordaindu behar dira, 6 euro adin txikikoek, 65 urtetik gorakoek eta langabeek.

### Saioaren dinamika

Erreserba egiten dutenek Nafarroako Zinema Bideari buruzko inguruko azalpen laburra jasoko dute. Taldeek antzetzuko duten eszena irudikatuko da errealitate areagotuko euskarri baten bitartez. Ondoren, hobeto interpretatzeko eta taldea kohesionaltzeko balioko duten dinamika dramatikoak proposatuko zaizkio taldeari, eta filmazioa hasiko da. Filmazioen ondoren, bisitariak tokiko artisau produktuak dastatuko dituzte. Bisitariak posta elektronikoan jasoko dute parte-hartu duten filma.

**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N  
Altsasu  
948 562 205

BM-supermerkatua

Araia (Araba)  
945 314 572

Olazti  
948 468 755

Etxarri-Aranatz  
948 461 660

San Juan kalea, 50  
Altsasu  
670 389 017

Otadiako Kristo  
Deuna Plaza, 19  
Altsasu  
948 562 185

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
T. 948 468 026



# ERAMAN ZUREKIN UDAKO AGENDA

## OSTIRALA 3

**IRURTZUN** Ur parkea.  
15:30etik 19:30era, igerilekuetan.

**ETXARRI ARANATZ** Pilota eta pala partiduak. Antolatzailea: Gure Pilota Elkartea.  
19:00etan, pilotalekuan.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.  
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa.  
20:00etan, udaletxe parean.



## EGIARRETAKO FESTAK



### OSTIRALA 3

15:00 Bazkari herrikoia.  
16:00 Bazkalondoan, Miguelen akordeoia.  
17:00 Mus, briska eta partxis lehiaketa.  
17:30 Puzgarriak eta buruhandiak.  
18:00 Festak hasteko suziria.  
20:00 Dantzaldia Modestorekin.  
22:00 Afari herrikoia.  
00:00 Dantzaldia Modestorekin.

### LARUNBATA 4

11:30 Jokoak, puzgarriak eta buruhandiak.  
12:30 Bermut txiki.  
13:00 Bermut-a.  
17:00 Puzgarriak eta buruhandiak.  
17:30 Gorriti eta bere animaliak.  
19:00 Txokolatada.  
19:30 Zumba.  
20:00 Dantzaldia Los Andusekin.  
22:00 Gazte afaria  
00:00 Dantzaldia Los Andusekin.

### IGANDEA 5

11:00 Meza.  
12:00 Otamena eta herriko helduei omenaldia.  
12:30 Bermuta, puzgarriak eta buruhandiak.  
16:00 Plater tiroketa.  
20:00 Dantzaldia Los Andus taldearekin.  
20:30 Tortila eta txistorra dastaketa.  
23:00 Gaixoa ni.

## LARUNBATA 4

**ALTSASU** Altsasu-Urbaşa-Arana-Teodosia-Opakua-Altsasu 110 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.  
08:00etan, San Juan plazatik.

**UHARTE ARAKIL** Aralarko pagadi, karst eta behatokiak bisita gidatua.  
12-14 km-ko ibilbidea. Erreserbak: info@mirua.com eta 608560369.  
10:00etatik 17:00ak arte, Aralarko santutegiko informazio gunetik.



**UHARTE ARAKIL** Arkeologia indusketara bisitak. Aditu-ko kideek egiten ari diren lana azalduko dute.  
11:00etan, Aralarko santutegian.

**LAKUNTZA** Si te vas no vuelvas liburuaren aurkezpena.  
16:30ean, kultur etxean.

Udako jaietan egizu gurekin topa!

**Hijos de Goikoetxea**  
Tel. 948 467 317 - 896979270 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak  
liburuak  
jostailuak  
opariak  
eskulanak

Inprimagailuendako kartutxoak

948 460 477  
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

**Txalaparta**

**Taberna**

FESTETAN BERRIZ ERE... GUDA DANTZAK GUREAN

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**Sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357



# ETXARRI ARANAZKO FESTAK



## Ume motxiladunen suziria

Motxiladun umeen ordezkariak batek botako du Etxarri Aranazko festen hasierako suziria. Ekintza honekin herriko udalak "oinarizko giza-eskubide bat" aldarrikatu nahi du: presoen seme-alabek gurasoak gertu izateko beharra eta eskubidea dutela. Izan ere, udalak adierazi duenez espetxeko urruntze politikak presoen seme-alabei "zama gehigarria" ekartzen die haien bizimodu eragin delako. Gaur egun, Etxarri Aranazko bost motxiladun seme-alaba daude.

## LAUNBETA 4

### ETXIA! EGUNE

**10:00** Ehiza- ibilbidea. Antolatzailea: Muxar Ehiztari Taldea.  
**12:00** Festetako futbito txapelketa-ko finala. Antolatzailea: EGA.  
**12:00** 2017an jaiotako hurrei zapi-banaketa.  
**13:00** Festa hasierako suziria. Gero Kalejira Etxarri Aranazko erraldoi eta buruhandien konpartsa, Etxarri Aranazko gaitero eta Turrutxiki txarangarekin.  
**14:00** Kontzertua Turrutxiki txarangarekin, plazan.  
**17:30** Kalejira Turrutxiki txarangarekin.  
**18:30** Dantza ikuskizuna: Etorkizuna Euskal Dantza taldea, plazan.  
**19:30** Manifestazioa: "Euskal preso, iheslari eta deportatuak behingoz kalera". Antolatzailea: Kalera kalera.  
**20:00** Salbea Andra Mari basilizan, Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Parrokiako Abesbatzak kantaturik. Antolatzailea: Eliza.  
**20:30** Auzatea. Hartzabal, Etxe-Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karriestu elkarteek prestatuak.  
**20:30/22:00** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**00:30/04:30** Gaupasa Tximeletarekin.

## IYENDIE 5

### ARAÑAZ ELKARTIEN EGUNE

**10:30** Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.  
**11:30** Auzatea Gure-Etxea elkarteak prestatuak.  
**12:00** Meza nagusia. Antolatzailea: Eliza.  
**12:30** Herri-kirolak. Apustu konbinatua: Aizkoran, harrian eta korrikan. Erdozia familiako 3 belaunaldiren erakustaldia. Sakanako Aizkora Eskolako ikasleen erakustaldia, plazan.  
**Laguntzailea:** Insalus.  
**13:00** Etxarriko Erraldoiak eta Buruhandiak.  
**13:30** Musika ikuskizuna Gontzal Mendibil abeslaria Philippe Ezkurraren laguntzarekin  
**19:00** Kale-antzerkia. Zirika Zirkus taldearen "Egun on sikiera" ikuskizuna.  
**20:00/22:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**00:00/03:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

## ASTELEHENA 6

### KUADRILLAAN EGUNE

**10:30** Dianak Txarangarekin.  
**11:30** Auzatea. Etxe-Azpi elkarteak prestatuak.  
**12:00** Haurrendako apar-festa. (Bainujantzia eta txankletak eraman)  
**12:30** Bertso-saioa. Sebastian Lizaso, Alaia Martin, Joanes Illarregi eta Saats Karasatorre, plazan.  
**13:00** Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarrek  
**18:00** Kale ikuskizuna "Amico on the beach".  
**19:00** Kalejira. Los Pasai txarangekin, Gaztetxetik.  
**20:00/22:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**00:00/03:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

## ASTIERTIE 7

### HAURREN EGUNE

**11:30** Auzatea. Udaberri elkarteak prestatuak.  
**11:30/13:30** Jolas-parkea

haurrendako.

**13:00** Etxarriko Buruhandiak.  
**13:00** Musika saioa. "D'Capricho kubako doinuak Euskal Herrian".  
**17:00** Futbol-plaza txapelketa kale nagusian.  
**17:00/19:00** Jolas-parkea haurrendako.  
**19:00** XXV. Play Back txapelketa plazan. Sariak: Taldeka aritu den onenari, 100 euro, euskal abesti onenari, 100 euro. Parte-hartzen duen talde bakoitzari, 25 euro.  
**20:00/22:00** Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**00:00/03:00** Dantzaldia Gabenara taldearekin.

## ASTIZKENA 8

### AITTUN-AMIÑAN EGUNE

**11:30** Auzatea Hartzabal elkarteak prestatuak.  
**12:00** Meza. Antolatzailea: Eliza.  
**12:00** Haurrendako apar-festa. (Bainujantzia eta txankletak eraman)  
**13:00** Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarrek.  
**13:00** Musika saioa. "Tenampak eta Mariatxiak" taldea.  
**14:30** Aittun-Amiñan bazkaria.  
**16:00** Aitor soinu-jole eta musikaria.  
**17:00** XXXI. Iruñerriko itzulia. Jubenilen txirindularitza-lasterketa. Antolatzaileak: Aralar eta Ermitagañako txirindularitza taldeak.  
**Laguntzailea:** Insalus  
**18:00** Magia ikuskizuna. Hodei magoaren "ordu magikoa".  
**20:00/22:00** Dantzaldia Drindots taldearekin.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**00:00/03:00** Dantzaldia, Drindots taldearekin.

## OSTEGUNE 9

### KINTUEN EGUNE

**10:30** Dianak, Turrutxiki txarangarekin (kintoek etxez etxe dirua eskatuko dute). Antolatzailea: Urteko kintoak.  
**11:30** Auzatea Urteko kintoek prestatuak.  
**12:00** Nesken pala-partidak. Antolatzailea: Gure Pilota Elkartea.  
**13:00** Etxarriko Buruhandiak eta Bonba japoniarrek.  
**13:00** Musika Saioa.

Beietz! Folk-rock taldea.

**17:00** Kalejira Turrutxiki txaranga.  
**18:30** Bordetxe Abere Zirkoa.  
**19:30** Kintoek antolaturiko ginkana.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**23:00** Kontzertuak: Tokan2 Lapolla eta Brutal room.

## ETXARRIKO HERRI MUGIMENDUBAN FESTA EGITARAUE

## LAUNBETA 4

### PRESO, IHESLAI TA DEPORTATUBAN EGUNE

**10:00** Futbito txapelketa.  
**13:00** Etxafigue.  
**13:30** Presuen aldeko argazkiye, Gaztetxeko aldapan.  
**15:00** Preso ta iheslarien aldeko Bazkaye.  
**Bazkal** ondoren preso ta senidiei omenaldiye.  
**19:30** Manifa: Preso, iheslai ta deportatubek etxia!

## IYENDIE 5

**08:00** Gurdi demente kalejira.

## ABUZTUAK 7

### 25 urtez dantzan Etxarriko festetan

Etxarri Aranazko Festetako Play Back lehiaketaren 25. urteurrena ospatuko dute aurten. Play Back-a abeslari edota musika talde baten abesti batekin imitazio ikuskizuna egitean datza; hortaz, 25 urte hauetan asko izan dira imitazioak egin dituzten haurrak eta gazteak. Etxarriarrek zein beste herrietakoek parte hartu dute emanaldi alaitsu honetan, festetako ezinbesteko bat bihurtuz: ikusle gehien biltzen dituen festetako ikuskizuna da. XXV. Play-back Txapelketa abuztuaren 7an ospatuko da, Haurren egunean, 19:00etan.

**20:00** Kostillada, Gaztetxien.

## ASTELEHENA 6

### KUADRILLAN EGUNE

**15:00** Sagardotegi bazkaye, Karrikestun.  
**18:00** Mozorro karro lehiaketa.  
**19:00** Kuadrillen igoera, Gaztetxetik.

## ASTEARTIE 7

**18:00** Txalupa jeitsiera.  
**22:00** Bertso afaye, Karrikestun.

## ASTIZKENA 8

### GAZTE EGUNE

**15:00** Gazte bazkaye.  
**17:00** Bingue.  
**19:00** Elketrotxaranga.  
**23:00** Kontzertubek: Herdoil, Sofokaos eta The Guilty Brigade.  
**03:00** DJ Bull, Eragilen.

## OSTIELA 10

### INUTILLAN EGUNE

**11:00** Burrenbada.  
**13:00** Parodia: Josep Maria Cantimplora i l'Orquestra Cloratita.  
**15:00** Bazkaye.  
**17:30** Inutilan desfille.  
**20:00** Presuen aldeko enkartelada.  
**20:30** Pregona.  
**22:00** Zezensuzkue.  
**23:00** Berbena eta Ahuntzape.

Parte hartzen duten talde guztiek 25 euroko saria izanen dute. Talde hoberenak 100 euroko saria jasoko du; euskal abestiarekin emanaldi hoberena egiten duen taldeak ere 100 euroko saria jasoko du. Haur, gazte eta helduak parte hartzera gonbidatuta daude.

Parte hartzeko [kultur@etxarriaranatz.eus](mailto:etxarriaranatz.eus) e-postara mezu bat bidali behar da edo egunean bertan, eszenatokian, 18:30ak arte izena eman daiteke. Gainera, abestia CD batean entregatu behar da, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago.



**IGANDEA 5**

**UHARTE ARAKIL** Aralarko paisaia eta trikuharrietara bisita gidatuak. 4 km-ko ibilbidea. Erreserbak: [info@mirua.com](mailto:info@mirua.com) eta 608560369. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegiko informazio gunetik.

**URDIAN** Egun batez aktore: Robin eta Marian. Paseoa zaldiz. Erreserbak: 687424839/626749149 eta [errotain@gmail.com](mailto:errotain@gmail.com). 11:00etatik aurrera, Errotain zalditegian.

**IRAÑETA** Aralarko santutegian eginen den meza despedituko dute irintarrek aurtengo ermitaz ermita erromeria aldia. 13:00etatik izanen da meza, eta, ondoren, udalak otamena eskainiko du. Aterpean bazkalduko dute irintarrek. Aurreko hiru ingadeetan elizkizunak egin dituzte San Gregorio eta San Migelberri ermitetan eta Basabeko bordan.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

**ASTELEHENA 6**

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma. 19:30ean, Zumalakarregi plazan.

**ASTEAZKENA 8**

**IRURTZUN** Udako zinema zikloa: *La guerra del planeta de los simios* filmaren emanaldia. 22:00etan, Foru plazan.

**OSTEGUNA 9**

**ALTSASU** Gaueko pulunpak. 12 urtetik gorako gazteek bainua eta bestelako jardueraz gozatzeko aukera izanen dute. Gainera, Dantzalekuko igarilekura joaten direnek



**UHARTE ARAKIL** Kristauak erasoepen munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.

eskuratzeo aukera izanen dute, Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako ekimena da. 21:00etatik 23:00etara, Dantzaleku igarilekuan.

**ALTSASU** Zeruaren behaketa. Altsasuko udako Gazteria Zerbitzuak izarrak behatzeko aukera emanendu, doan. 22:30ean izanen da, Txioka haur ikasatolan.

**OSTIRALA 10**

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**LARUNBATA 11**

**ALTSASU** Nojara irteera 140 km-ko ibilbidea eginen dute Barrankako errepide atalekoek. 08:00etan, taldearen egoitzatik.

**UHARTE ARAKIL** Aralarko milaka urteko paisaiak bisita gidatuak. 8 km-ko ibilaldia. Erreserbak: [info@mirua.com](mailto:info@mirua.com) eta 608560369. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegiko informazio gunetik.

**UHARTE ARAKIL** Arkeologia indusketara bisitak. Aditu-ko kideak egiten ari diren lana azalduko dute. 11:00etan, Aralarko santutegian.

**SATRUSTEGI Txu & Txu Lorena** Aranoaren eta Patxi Larrearen klowna. Adin guztiendako. 21:00etan, plazan.

**IGANDEA 12**

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

**ASTELEHENA 13**

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma. 19:30ean, udaletxe parean.

**IGANDEA 12****San Donato erromeria**

**UHARTE ARAKIL** San Donato eta San Kaetano sainduei eskainia dagoen Beriango ermitan dagoen hitzordua uharteara-kildarrek. Hara igotzeko Olloko, Irañetako, UharTE Arakilgo eta Unanuko bideak dira erabiltzen direnak. Sainduen eguna abuztuaren 7an bada ere, ospakizuna ondorengo igandera pasatzen da. Uhartearrek bi sainduen irudiak herrian gordetzen dituzte eta egun honetan mendira igotzen dituzte erromerian.

11:00etan, elizkizuna izanen da ermitan. Mezaren ondoren auzatea izanen da: UharTE Arakilgo Udalalake gazta, txorizoa, urdaia, ardoa eta ura emanen ditu eta Olloko ibarretik joandakoek kafea eta pastak.

**ZUHATZUKO FESTAK****OSTIRALA 10**

20:00 Txupinazoa.  
22:00 Zinema eta autogestionatutako bokata.

**LARUNBATA 11**

11:00 Puzgarriak eta buruhandiak.  
12:30 Bermut-a eta trikitixa.  
14:30 Herri bazkaria.  
17:00 Mus eta briska txapelketak.  
17:00 Magoa.

18:30 Txokolatada.  
20:00-22:00 DJ eta Karaokea.  
22:30 Afaria.  
00:00 Dantzaldia Los Andus taldearekin eta Karaokea.

**IGANDEA 12**

11:45 Meza.  
14:00 Bazkaria.  
17:30 Puzgarriak, barredora eta buruhandiak.  
21:00 Afaria.  
22:00 Gaixoa ni.

**iraize**  
gosariak bokatak

948 117 810  
ETXARRI ARANATZ

**Karasatorre**  
janaridenda · harategia

Artisau erara egindako hestebeteak  
Autozerbitzua  
Etxeko tripekiak

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

CONCURSO NAVARRO TXISTORRA  
NARRARROKO TXISTORRA  
LEHIAKETA  
1. SARIA



NAFARROAKO INTERES TURISTIKOKO FESTA

**ARTZAI EGUNA 2018**  
Abuztuak 26 igandea Nafarroako artzain eguna  
51. edizioa

ANTOLATZAILA ORGANIZAZIA:



LAGUNTZAILA COLABORAN:



IDIAZABAL



Nafarroako Gobernua  
Landa Garapeneko, Ingurumeneko  
eta Toki Administrazioko Departamentua

Gobierno de Navarra  
Departamento de Desarrollo Rural,  
Medio Ambiente y Administración Local



**IGANDEA 12****San Donati  
erromeria****UNANU**

San Donatiren magalean elkarturik. San Donato egunarekin mendizaleek mendi gaineko eramitarako bidea hartzen dute. Unanatik abiatzen dira eta, hori kontuan hartuz eta herriari biztasuna emateko asmoz, Unanuko Kontzejuak San Donati eguna antolatzea erabaki zuen due-la bost urte.

Denok Bat elkartearen egun guztian zabalik izanen da eta mendira joan aurretik edo ondoren handik pasa eta freskatzeko aukera izanen da. Gainera, herri bazkaria antolatu dute. Elkartean izanen da 15:00etan. Herri bazkariara joan nahi duenak aurretik izena eman behar du 656 757 494 (Jon), 650 403 106 (Jabi) edo 616 664 038 (Joseba) telefonoetara deituz.

**DORRAOKO FESTAK****ASTEARTEA 14**

12:00 Festa hasierako suziria.  
17:30 Futbol eta pilota partiduak: haurrak eta herriko gazteak.  
20:00-22:00 Dantzaldia Drindots taldearekin.  
21:00 Auzatea.  
01:00 Dantzaldia Drindots taldearekin.

**ASTEAZKENA 15****AMA BIRJINAREN EGUNA**

13:30 Meza Nagusia.  
14:00 Hamaiketako eta trikitixa.  
19:30 Mexikarrak Txamukosekin.  
21:00 Auzatea, plazan.  
22:00 Suziriak.  
00:30 Dantzaldia Andus taldearekin.

**OSTEGUNA 16****ERROLDA EGUNA**

14:30 Herri bazkaria.  
17:30 Urteroko errolda.  
20:00 Dantzaldia Andus taldearekin.

21:00 Auzatea  
00:30 Dantzaldia Andus taldearekin.

**OSTIRALA 17****HAURREN EGUNA**

12:30 Bordetxeren animaliak.  
18:00 Haurren txokoa.  
20:00 Dantzaldia Anitaren billobak taldearekin.  
21:00 Auzatea.  
00:30 Dantzaldia Anitaren billobak taldearekin.

**LARUNBATA 18****JUBILATUEN EGUNA**

13:00 Jubilatuen meza.  
14:00 Luntxa eta trikitixak, plazan.  
19:00 Aizkora apustua.  
20:00 Dantzaldia DJ Julen-ekin.  
21:00 Sardinada eta txistorrada.  
22:00 Suziriak.  
00:30 Mozorro lehiaketa.  
01:00 Dantzaldia DJ Julen-ekin.  
05:00 Gaixoa ni!

**URDIAINGO  
ANDRAMAUZKO  
JAIK****ASTEARTEA 14**

12:00 Etxajua trikitilariet alaitua.  
16:00 Briska txapelketa, Kaluxan. Mus txapelketa, Mareon.  
16:30-19:30 Jokoak: Wipeout barredora, joku trena eta puzgariak, eiliza ataien.  
20:00-22:00 Dantzaldia Alaiki taldearekin.  
00:30-3:30 Dantzaldia Alaiki taldearekin.

**ASTEAZKENA 15**

12:00 Meza Aitzibergo basilizan.  
Ondoren, auzatea trikitilariet alaituta.  
14:30 Bazkaia, Urritzin.  
20:00-22:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
00:00-3:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da, alondegian.

**ASTEAZKENA 15****ETXARRI ARANATZ  
Amerjinen  
egune**

Etxarriarrak Andremai ermitaren inguruan biltzen dira abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren egunean. 9:00etan udalak udaletxetik ermitako bidea hartuko du. Iristean merenduekin hasteko seinalea den etxajua botako dute. Merenduaren ondoren kintoek herriko Dantzakiye eginen dute ermitaren atariaren parean. Eta, horren ondoren, kalejiran plazara jaitsiko dira. Orots taldeak girotuko du plaza 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 03:00etara. Eguraldi onarekin ohikoa da lagun koadrilak ermitaren inguruan mahaietan hizketan edo kantatzen gelditzea.

**ITURMENDI****Ama Birjinaren  
eguna**

Aritzaga ermitan ospatzen dute Ama Birjinaren eguna iturmendiarrak.

**Festa onak pasa!**

Etxarri Aranazko Udala  
www.etxarriaranatz.com

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

I ♥ Etxarri Aranatz

EZ-ETXARRI EUSKALDUNEN



Egunerako Erdi Aroko ermita zabal-tzen dute eta 12:00etan meza eginen dute han. Ondoren, iturmendiarrek ermitaren izen bereko elkartean, Aritzagan, auzatea izanen dute. Badi-ra ermita inguruan bazkaltzen duen familiak ere.

**IRURTZUN Udako zinema zikloa: Es por tu bien filma.**  
22:00etan, Foru plazan.

## OSTEGUNA 16

**ALTSASU Gaueko pulunpak. 12 urtetik gorako gazteek bainua eta bestelako jardueraz gozatzeko aukera izanen dute. Afaltzeko ogitartekoa hartzeko aukera ere izanen dute gazteek. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako ekimena da.**  
21:00etatik 23:00etara, Dantzalekun.

**ARBIZU Jaialdi akustikoa: Kirua taldea.**  
21:45ean, Eko kanpinean.

## OSTIRALA 17

**UHARTE ARAKIL Aralarko pagadi, karst eta behatokieta bisita gidatuak. 12-14 km-ko ibilbidea. Erreserbak: info@mirua.com eta 680560369.**  
10:00etatik 17:00ak arte, Aralarko santutegiko informazio gunetik.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.**  
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.**  
20:00etan, plazan.

**Altsasu Altsasukoak aske kontzentrazioa.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**IRURTZUN Txu & Txu Lorena Arangoaren eta Patxi Larrearen klown ikuskizuna. Adin guztietarako.**  
22:00etan, igerilekuetan.

## LARUNBATA 18



**ALTSASU Altsasu-Irurtzun-Ainzoin-Zia-Irurtzun-Altsasu 115 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirriindulari Taldeko errepide atalekoek.**  
08:00etan, San Juan plazatik.

**UHARTE ARAKIL Arkeologia indusketara bisitak. Aditu-ko kideek egiten ari diren lana azalduko dute.**  
11:00etan, Aralarko santutegian.

## LARUNBATA 18

### Harleze eguna



**LIZARRAGA**  
Lizatarrek mendian dagoen lezera joan-etorria eginen dute, festa giroan. 09:00ak aldera abiatuko dira San Adrian ermitarantz. Ermitaren aldamenean Lizarragako Kontzejuak auzatea eskainiko du 10:30ak aldera. Eta indarberiturik Harlezerainoko bidea eginen dute. 11:30ean iristea aurreikusten dute. Han sartu-atera egin eta Lizarragako bidean jarriko dira. Herrian bazkaria izanen da. Mahaitik jaiki ondoren, etxeko errondan ibiliko dira lizarratarrak musikaz lagunduta. Kontzejuak afaltzeko marmitakoa eskainiko du, eta, ondoren, dantzaldia izanen.

### Sandindeiko erromeria

#### ARBIZU

Aralar mendia magalean dagoen Sandindei bordaren inguruan erromeria eginen dute arbizuarrek, trikitilariak lagunduta. Arbizuarrek 2005etik ospatzen dute erromeria, San Juan festez aparte herri-tarrek beste festa-egun batean elkartzeko premiari erantzunez.

- **11:30ean** hartuko dute harako bidea. Kalejira bordara iritsita, udalak atea eskainiko du.
- **13:00etan.** Ordurako bazkari prestaketa aurreratua izanen dute, halakoetan ohi denez, basoan majo bazkaltzen baita. Trikitilariekin itzuliko dira herrira bazkaldu ondoren.
- **19:00etan.** Behin herrian dantzaldiak plazan segida izanen du.

antzerki taldearen antzerki lanen kokalekua. Sakanako irudikapen propioa egiten saiatzen dira. 22:30ean izanen da emanaldia, plazan.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 20

**ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma.**  
19:30ean, Zumalakarregi plazan.

## ASTEAZKENA 22

**IZURDIAGA Zirko tailerra: zankuak, mazak, pilotak, makila txinatarrak eta abar erabiltzen ikasteko tailerra. Izena emateko azken eguna abuztuaren 14a: erroldatuek 20 euro eta erroldatu gabek 30 euro. Antolatzailea: Arakil Kultura.**  
11:00etatik 13:00etara, futbol zelaian. Eguraldi txarra eginez gero elkartean.

**IRURTZUN Udako zinema zikloa: Kon-titi filma euskaraz.**  
22:00etan, Foru plazan.

## OSTEGUNA 23

**ALTSASU Gaueko pulunpak. 12 urtetik gorako gazteek bainuaz eta bestelako jardueraz gozatzeko aukera izanen dute. Afaltzeko ogitartekoa hartzeko aukera ere izanen dute. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako ekimena da.**  
21:00etatik 23:00etara, Dantzalekun.

# SATRUSTEGIKO FESTAK

## OSTIRALA 17

20:00 Txupinazoa.  
20:30 Dantzaldia DJ Sergiorekin.  
22:00 Herri Afaria.  
00:30 Dantzaldia DJ Sergiorekin.

## LARUNBATA 18

13:00 Bermut-a.  
14:30 Tortilla lehiaketa.  
18:00 Haurrendako jolasak.  
19:00 Pilota partiduak.  
Kadeteak: Amiano-Markina / Martiarena-Igoa  
Seniorrak: Ongay / Olló

20:30 Dantzaldia DJ Sergiorekin eta haurrendako mozorroak.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:30 Dantzaldia DJ Sergiorekin.

## IGANDEA 19

12:00 Meza Nagusia.  
13:00 Otamena eta boleroak Esencia taldearekin.  
18:00 Haurrendako jolasak WII-arekin.  
19:00 Futbolin lehiaketa.  
19:00 Dantzaldia DJ Asierrekin eta sari banaketa.  
22:00 Gaixoa ni.

## IGANDEA 19

### IHABAR

### Ihabar Zirkus

Nazioarteko ikuskizuna Ihabarrera iritsiko da Jon Barbarinek zuzentzen duen Ihabargo antzerki taldearen eskutik. Hau da, Arakilgo aktoreek zirkua antzetzeko dute aurten: kontorsionista, trapezista eta abar bihurtuko dira. Etorrizuneko zirkua errenda-ko ere lekua izanen da antzerki taldearen hamaikagarren emanaldian. Barbarinen esanetara 18 aktore heldu eta 20 bat haur jarri dira. Uztailaren erdialdean hasi ziren "teatro sozial gastronomikoen" entseguak. Ihabarrek estimatzen duten jarduera da antzerki taldea. Ihabar izan ohi da

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Aliprox**

948 576 246  
Larrañeta z/g  
LAKUNTZA

**GANUZA ANAIK**

f.ganuzai@cocinasganuz.com  
Zumurdiñeta industrialdea  
Etxari Aranatz  
948 460 203  
Faxa: 948 460 673  
www.cocinasganuz.com

**xapatero**  
taberna

Etxeko kroketak eta bokatak  
Ongi pasa festetan!

948 460 162 · Etxarri Aranatz

Ongi pasa festetan!

**TRASKIL**  
MODA DENDA

UDAZKEN-NEGU DENBORALDIA

ETXARRI ARANATZ

tuc tuc



**IGANDEA 19****Lakuntzako Pertza erromeria**

Abuztuko Ama Birjinaren egunaren ondorengo igandean ospatzen da Lakuntzako Pertza. Goizter mugituko dira lakuntzarrak. 06:00etan abiatuko dira Aralarko santutegira astoa bidelagun dutela. Astoak gosarirako beharrezkoak diren tripotak, ogia eta ardoa eraman ditu. Indarra hartzeko bide erdian geldialdia egiten dute lakuntzarrek. Behin santutegira iritsi meza izanen da, 11:00etan.

Mezaren ondoren Lakuntzako Pertza elkarteak auzatea eskainiko du: tripotak, ardoa eta ogia. Ondoren, Biltokiko gazteek santutegiko plazan Lakuntzako Pertza dantza dantzatuko dute. Ondoren,

lakuntzarrak Albi aldera mugituko dira eta Guardetxe zenaren inguruan bazkalduko dute. 16:30etik aurrera dantzaldia izanen da, baita herrian bueltan ere.

Festak ordu txikiak arte segituko du.

**OSTIRALA 24**

**UHARTE ARAKIL** Aralarko triku paisaietara eta trikuharrietara bisita gidatuak. 4 km-ko ibilbidea. Erreserbak: [info@mirua.com](mailto:info@mirua.com) eta 608560369. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegiko informazio gunetik.

**IZURDIAGA** Zirko tailerra: zankuak, mazak, pilotak, makila txinatarrak eta abar erabiltzen ikasteko tailerra. Izen emateko azken eguna abuztuaren 14a: eroldatuak 20 euro eta eroldatu gabek 30 euro. Antolatzailea: Arakil Kultura. 11:00etatik 13:00etara, futbol zelaian. Eguraldi txarrarekin elkartean.

**LAKUNTZA** Zabalarteren eskutik Guardetxera igoera herrikoia. 18:00etatik, plazatik.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.an.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

**OLAIZTI** Zinema aire zabalean: **Handia** filma. 22:00etan, futbito pistan. Eguraldi txarra eginez gero frontoian izanen da.

**ERROTZ** Arakilgo herriak

hiru festa egun izanen ditu, larunbatetik astelehenera.

**LARUNBATA 25**

**ALTSASU** Altsasu-Alegria-Azazeta-Iturrieta-Opakua-Altsasu 105 km-ko ibilbidea eginen dute Barrankakokoek. 08:00etan, San Juan plazatik.

**UHARTE ARAKIL** Aralarko pagadi, karst eta behatokitara

**IGANDEA 26****Artzai eguna****UHARTE ARAKIL**

Artzainak dira Uharthe Arakilen ospatzen den Artzai egunaren irudi eta eguneko jardueren ardatz nagusia. Aralar Mendi elkarteak antolatzen duen Artzain Eguna mendeko erdi eta urte bat betetzen ditu aurten.

Gazta, ardi, ardi-motzaile eta artaldearen erabileran txakur-trebezia lehiaketak eta artzantzari lotutako beste hainbat lan eta ohitura ikusteko aukera izanen dute bertakoek zein bisitariak, baita salmenta postuak, artisauek, gazten salmenta postuak, lanabesak, eta abar ere. Nafarroako Interes Turistikoko festa izendatu zuten 2012an. Artzainen omenaldi festa

- **10:00etan** Irekiera ekitaldia eta epaimahaiaren osaketa.
- **10:30-14:30** XXXVII. Nafarroako ardi latxen esnearekin egindako gazta lehiaketa. Gazta feria eta artisautez feria.

- **10:30-13:30** XXXV. Nafarroako ardi latxen erakusketa eta esne-ekoizpenaren lehiaketa. XV. latxa arrazako aziendaren estatuko lehiaketa.
- **11:00-12:00** XXVI. artzain txakurren erakusketa.
- **11:00-13:00** XXXI. Nafarroako ardi-motzaileen txapelketa.
- **11:30** Artalde herritik.
- **12:45** Gazta dastaketa.
- **13:00** Omenaldia.
- **13:30** Lehiaketen sari-banaketak. Gazta irabazlearen enkantea.
- **14:30** Herri bazkaria pilotalekuan.
- **17:00** LI. Nafarroako artzain-txakurren txapelketa Geinberan. Euskal Herriko eta Oñatiko nazioarteko txapelketarako sailkagarria. Omenaldia. [www.artzaieguna.com](http://www.artzaieguna.com)

\*Goizean zehar: gazten eta eskuz eginiko beste produktuen erakusketa; eskulanean erakusketa: kaikuak, egurrezko uztaiak, apaingarriak, zeramika, egurra, ardazlariak, taloak, jakiak... Euskal dantza, musika taldeak eta joaldunak.

**IRAÑETAKO FESTAK****OSTEGUNA 23**

- 20:30** Frontenis txapelketako finala.
- 21:30** Herri urdai-jatea.
- 00:00** Dantzaldia DJ Markel-ekin.

**OSTIRALA 24**

- 12:00** Etxajua.
- 13:30** Paella lehiaketa.
- 17:00** Kuadrilen arteko gynkana.
- 20:15** Dantzaldia Gabenara taldearekin eta txokoan ardoa.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 00:00** Dantzaldia DJ Markel-ekin.

**LARUNBATA 25**

- 11:00** Hamaiketako: baba txikiak sakramentu ia guztiekin.
- 12:30** Mus txapelketa azkarra.
- 17:00** Mozorroen kalejira txarangaekin herrian barna.
- 20:30** Musika plazan Chuchin Ibañez-ekin eta txokoan ardoa.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 00:30** Dantzaldia DJ Markel-ekin.

**IGANDEA 26**

- 11:00** Haurrendako puzgarriak.
- 15:00** Herri bazkaria (izena emateko azken eguna abuztuaren 22a).

- azken eguna abuztuaren 22a).
- 17:30** Haurrendako puzgarriak.
- 20:00** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin eta txokoan ardoa.
- 22:30** Zezensuzkoa.

**ASTELEHENA 27**

- 17:00** Haurrendako tailerrak
- 20:00** Dantzaldia DJ Markel-ekin eta txokoan ardoa.
- 22:15** Zezensuzkoa.

**ASTEAZKENA 29**

- 12:30** Patroiaren omenezko meza.
- 12:45** Otamena eta musika Andoni akordeolariaren eskutik.
- 15:00** Sagardotegi menuko herri bazkaria (izena emateko azken eguna abuztuaren 22a).

Agencia Bakarra

**Allianz** Aseguruak

HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.

[etxarri@sayasmas.com](mailto:etxarri@sayasmas.com)  
948 111 411  
Larrañeta 19 behea  
ETXARRI ARANATZ

Ongi pasa festetan!

**HORTZ KLINIKA**  
**Etxarri**  
Eguerdietan zabalik

948 460 315  
Kale Nagusia 27  
Etxarri Aranatz

LEKU ONA TABERNAK  
FESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE !!!

LEKU ONA

AFALTZEKO BOKATAK!!!  
ENKARGATUZ GERO,  
ASKOZ HOBE!

TFNOA: 948 461 228

**MARINELETXE**  
HARATEGIA

948 46 19 80  
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6  
Etxarri Aranatz

Ongi pasa festetan!

**TANIA**  
ARRAINDEGIA

Ongi pasa festetan

948 576 300  
Mikel Arregi 6  
LAKUNTZA



bisita gidatuak. 12-14 km-ko ibilbidea. Erreserbak: info@mirua eta 608560369.

10:00etatik 17:00etara, Aralarko santutegiko informazio gunetik.

**UHARTE ARAKIL** Arkeologia indusketara bisitak. Aditu-koen azalpenekin.

11:00etan, Aralarko santutegian.

**ALTSASU** Ezetaerre galiziako rap taldearen kontzertua. *Gaztetxean.*

**ALTSASU XII. Sierra de la Comarca** 50 km-ko ibilbidea eginen dute Barrankako Mendikoek.

07:30ean, abiatuko dira taldeko egoitzatik.

**URDIAIN** Egun batez aktore: Robin eta Marian. Paseoa zaldiz. Erreserbak: 687424839/626749149 eta errotain@gmail.com.

11:00etatik aurrera, Errotain zalditegian.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 27

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma.

19:30ean, udaletxe parean.

**ALTSASU** Euskaraldia prestatzeko bilera irekia. 19:30ean, Gure Etxea eraikinean.

**LAKUNTZA** Inun abeslariaren kontzertua bandarekin. 22:00etan, plazan.

## ASTEARTEA 28

**ALTSASU** Festetako kartel lehiaketara aurkeztu diren proposamen erakusketa. Abuztuaren 28tik irailaren 9ra arte. 10:00etatik 14:00 arte, lortian.

## ASTEAZKENA 29

**ETXEBERRI** Zirko tailerra: zankuak, mazak, pilotak, makila txinatarrak eta abar erabiltzen ikasteko tailerra. Izena emateko azken eguna abuztuaren 14a: erroldatuak 20 euro eta erroldatu gabeek 30 euro. Antolatzailea: Arakil Kultura. 11:00etatik 13:00etara, frontoian.

## OSTEGUNA 30

### Oktober Festa

ALTSASU



Txuriak, horiak, gorriak, ilunak, beltzak, artozkoak... Guztira, iturriko edo bolitako hamasei garagardo dastatzeko aukera izanen da abuztuaren 30etik irailaren 2ra arte, ostegunetik igandera, ospatuko den Garagardo Azokan. Baratzekobiden jarriko dute karpa erraldoia. Gainera, Garagardo Azokako karpan afaltzeko aukera izanen da ere: txerri-ukondoak, patatak, saltxitxak eta hanburgesak, besteak beste, osatuko dute menua. Garagardo Azokaren hamaseigarri edizioa ospatuko da aurten. Festen aurretik egiten da. Altsasuko peñek antolatu zuten lehenengoz eta, gaur egun, Zubiondo elkarteak antolatzen du.

Garagardo Azokaren ordu-tegia: abuztuaren 30ean, ostegunean, 19:00etatik 00:00etara. Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean, ostiralean eta larunbatean, 19:00etatik 03:00etara. Irailaren 2an, igandean, 19:00etatik 00:00etara.

## OSTIRALA 31

**ETXEBERRI** Zirko tailerra: zankuak, mazak, pilotak, makila txinatarrak eta abar erabiltzen ikasteko tailerra. Izena emateko azken eguna abuztuaren 14a: erroldatuak 20 euro eta erroldatu gabeek 30 euro. Antolatzailea: Arakil Kultura. 11:00etatik 13:00etara, frontoian. Eguraldi txarreakin elkartean.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. an.

**SAKANA** Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharre Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiaku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

# LAKUNTZAKO FESTAK



## LARUNBATA 25

11:00 Lakuntzako Futbol Sala Txapelketako finalak.  
11:30 Diana lakuntzako txistulariekin.  
12:00 Ezkil errepiketa.  
12:30 Txupinazoa.  
12:30 Erraldoi eta buruhandien konpartaren irteera Haizadi gaiteroekin.  
13:00 Zapi banaketa 2017ean jaiotako haurrei.  
13:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.  
13:25 Futbito eta Guardetxeko igoerako sari banaketa, herriko plazan.  
13:45 Topa Haizea elkartean.  
15:00 Elkartasunaren aldeko bazkaria, herriko plazan.  
Ondoren "Orain presoak" kalejira Elektrotxarangarekin.  
Arratsaldean zehar, Dantza-poteoa Haizadi Gaiteroen eskutik.  
16:30 Haurrentzako apar festa, larraina plazan.  
18:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia, herriko plazan.  
19:30 Larrain dantza.  
19:30 Buruhandien irteera.  
20:00 Auzatea.  
20:00-22:00/01:00-04:30 Dantzaldia Trikidantz taldearekin, herriko plazan.  
21:30 Zezensuzkoa.

## IGANDEA 26

12:30 Meza Nagusia.  
13:00 Auzatea Lakuntzako Pertza Elkartearen eskutik.  
13:00 Beiet! taldearen kontzertua.  
17:30 Bizikleta zinten jolasa, Aldababide Plazan.  
(Kaskoa derrigorrezkoa izango da)  
18:00 Nafarroako herri kirol konbinatuen finala.  
19:30 Buruhandien irteera.

20:00 Konzentrazioa.  
20:15 Auzatea Ehiztarien eskutik.  
20:15-22:00 Dantzaldia Tximeleta taldearen eskutik, herriko plazan.  
21:30 Zezensuzkoa.  
00:30-02:30/20:15-22:00 Dantzaldia Tximeleta taldearen eskutik, herriko plazan.

## ASTELEHENA 27

HAURREN EGUNA

11:30 DIANA Lakuntzako txistulariekin.  
11:30-14:00 Puzgarriak, Herriko Plazan.  
12:30 Erraldoi eta buruhandi konpartaren irteera, Haizaldi gaiteroekin.  
13:00 Auzatea Gure Nahiaren eskutik.  
16:30-19:00 Puzgarriak Herriko Plazan.  
19:30 Buruhandien irteera.  
20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.  
20:00-22:00 Musika eta dantza Drindots taldearekin, plazan  
21:30 Zezensuzkoa.  
00:30-02:30 Musika eta dantza Drindots taldearekin, plazan

## ASTEARTEA 28

AITTUN-AMIÑE EGUNA

11:30 KALDERETE Lehiaketa.  
12:00 Meza Nagusia Parrokiak antolatua.  
12:30 Bizikleta zinten jolasa, Aldababide Plazan.  
(Kaskoa derrigorrezkoa izango da)  
13:00 Auzatea Gurasoen eskutik.  
13:00 Los Chamucos Mariatxiak, Herriko Plazan.  
14:00 Kaldereteko plater bilketa eta sari banaketa.  
14:30 Aittun Amiñen bazkaria, herriko plazan.

17:00 Kadeteen maila Txirrindulari proba.  
17:00 Aittun Amiñentzat Musika duo Amets ekin bazkaria eta gero.  
19:30 Buruhandien irteera.  
20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.  
20:00-22:00 Dantzaldia Joselu anaiak taldearen eskutik, herriko plazan.  
21:30 Zezensuzkoa.  
00:30-02:30 Dantzaldia Joselu anaiak taldearen eskutik, plazan.

## ASTEAZKENA 29

EUSKARALDIAREN EGUNA

12:00 Lakuntza kantuz Kuxkuxtu musikariekin batera, herrian barna.  
13:00 AUZATEA Haizearen eskutik.  
13:00 Bertsolariak, plazan.  
14:30 Euskararen aldeko Kantu bazkaria Kuxkuxturekin.  
18:00 Haurrentzat Xorotxaranga.  
19:00 Flashmob, plazan.  
19:30 Buruhandien irteera.  
20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.  
20:00-22:00 Dantzaldia Elebitan taldearen eskutik, herriko plazan.  
21:30 Zezensuzkoa.  
00:30-02:30 Dantzaldia Elebitan karaokearekin, herriko plazan.

## OSTEGUNA 30

GAZTE EGUNA

13:00 Auzatea Biltokiren eskutik.  
13:00 Oihuarima dantza ikuskizuna.  
15:00 Bazkaria bertsoarekin, ondoren bingoa eta Piropo lehiaketa.  
17:00-20:00 Elektrotxaranga, herriko kaleetan zehar.  
19:30 Buruhandien irteera.  
20:00 Auzatea.  
20:00-22:00 Atzapar Rock, plazan.  
21:30 Zezensuzkoa.  
00:35 Embajada eta Boot Boys.



# IHABARKO FESTAK

## OSTIRALA 31

19:00 Txupinazoa trikitilariak alaituta.  
19:30 Apustua: Andoni Jaka – Egoitz Carrion.  
20:30-22:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
22:00 Herri afaria.  
01:00-05:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
05:00 Ingurutxo eta tapia gaineko jota.

## LARUNBATA 1

13:00 Zumba.  
Otamena.  
14:00 Kaldereteak.  
18:00 Txep eta Lagunak, pirata-kalejiran.  
20:00-22:00 Dantzaldia Alaiki taldearekin.  
22:00 Herri afaria.  
01:00-04:30 Dantzaldia Alaiki taldearekin.  
04:30 Ingurutxo eta tapia gaineko jota.



## LARUNBATA 1

### Ospa eguna bueltan

#### ALTSASU

Ospa mugimenduak "errepresioaren kontrako borrokan aurrerapauso bat" emateko Ospa eguna antolatuta du. Joan den urteko etenaren ondoren seigarren aldia izanen da egun hori egiten dena. Eta hortik leloa ere: sugarretatik inoiz baino indartsuago altxatuko gara. Egunaren bidez Ospa mugimenduak "era guztietako errepresio-indarrei gure gaitzespena" adierazi nahi die. Antolatzaileek eguna "errepresioaren kontrako indar erakustaldia" izatea nahi du. Horregatik, "Altsasu eta Euskal Herri osoari parte hartze-deia" egin die.

## IGANDEA 2

12:00 Meza Donezteberen omenez.  
13:00 Otamena.  
Mikel Huarritz.  
14:30 Ihabarko ingurutxo.  
Herri argazkia.  
17:00 Mus txapelketa.  
18:00 Ginkana.  
20:00-22:00 Dantzaldia Modestorekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
23:00 Parrilada.  
23:30 Got talent lehiaketa.

## ASTELEHENA 3

11:00 Haurrendako jolasak.  
13:00 Otamena.  
14:30 Paella-jana.  
Ondoren, bingoa eta sarien banaketa.  
16:00-20:00 Puzgarriak.  
18:00 Txokolate-jana, buruhandiak eta mozorroak.  
20:00-23:00 Dantzaldia Modestorekin.  
23:00 Txistorra-jana.  
Ondoren gaupasa elkartean.

## LARUNBATA 1

**UHARTE ARAKIL Arkeologia indusketara bisitak. Aditu-ko kideek egiten ari diren lana azalduko dute.**  
11:00etan, Aralarko santutegian.

**IRURTZUN / ARAKIL II. Irurtzun-Arakil Rallysprinta. Adin guztietarako.**  
13:00etatik aurrera, egun osoan.

**ALTSASU Ezin zailago. Nafarroako XVII. Zirku Jaialdia: Baldin bada, Koselig eta Yee Haw kale-ikuskizunak. Ikus xx. orria.**  
18:00etatik aurrera, lortia zabalgunean.

## IGANDEA 02

**ALTSASU Ibisoko lautadara 46 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko**

## IGANDEA 2

### Oroimenaren eguna

#### OLAZTI

Otsaportillo 1936-2018. Oroimenaren alde ekitaldia. 1936ko estatu kolpearen ondoren eraildako sakandar guztiak gogoan izateko omenaldia Otsaportillon. Ekitaldian antzezpena, musika, auzatea eta abar eginen dira. Iraileko aurreneko igandean egiten da ekitaldia. Sakanako udalek ekitaldi bateratua eginen dute, eta Irañetako eta Uhar-te Arakilgo Udalen ardura izanen da aurtengo omenaldiaren aurkezpena. 12:30ean, Urbasako Otsaportilloko lezean.



## LARUNBATA 1

### KULTUR PROGRAMA Smoking Stones taldearen kontzertua

#### ALTSASU

• **23:00** Smoking Stones taldearen kontzertua, Foru plazan. Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Kultur programaren barruan Rolling Stones tributo taldeak joko du. Oroimen bandarik hoberenatarikotzat jotzen da Smoking Stones taldea. Taldearen ikuskizunean The Rolling Stonesen abesti arrakastatsuenak jotzen dituzte. 40 urteko ibilbide musikala ordubeteko emanaldian laburbiduta eskaintzen du Smoking Stones taldeak. Errespetu handiarekin egindako tributua da Smoking Stones egiten

duena. Hamabi urteko ibilbidean jarratzaile asko lortu dituzte. Musika jaialdi ospetsuetan jo dute eta, gainera, Gabi Alegret, Ariel rot, Leiva, Coque Malla eta beste hainbat abeslari ospetsuk diskoan kolaboratu zuten. Rock hutseko ikuskizuna. Sergio Ortiz da Smoking Stones taldearen Mick Jagger.  
• Urdiaingo errotatik abiatuta. Errotain zalditegiarekin zaldiz ordubeteko edo biko paseoak emateko aukera izanen da, Erreserbetarako: 687 424 839 eta 626 749 149 telefonoak edo errotain@gmail.com. 11:00etatik 19:00etara.

#### Mendi atalekoek.

7:30ean, abiatuko dira egoitzatik.

**URDIAIN Egun batez aktore: Robin eta Marian. Paseoa zaldiz. Erreserbak: 687424839 eta errotain@gmail.com.**  
11:00etatik aurrera, Errotain zalditegian.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

**ALTSASU Garagardo azoka.**

## ASTELEHENA 3

**ALTSASU Pentsio duinen alde.**  
19:30ean, udalatxe parean.

## OSTEGUNA 6

**ETXARRI ARANATZ Gaixo dauden errepresaliatuak kalera, amnistia osoa. AEMren kontzentrazioa.**  
19:30ean, plazan.

**EKAI Udako zinema.** 21:30ean, plazan.

# ZIORDIKO FESTAK



## ASTEAZKENA 5

15:00 Gaztetxearen herri bazkaria.  
19:00 Txupinazoa trikitilari eta buruhandiekin girotua.  
19:15 Play Back.  
19:30 Haur lasterketa.  
21:30 Herri afaria.  
00:00-02:00 Txumari DJ.

## OSTEGUNA 6

11:30 Jokulandia haurrendako jolas-parkea.  
14:30 Haurren bazkaria, elkartean.  
17:00 Jokulandia haurrendako jolas-parkea.  
17:30 Pilota partiduak.  
20:00 Bonba japoniarra. Ardo, gazta eta kakahuete banaketa.  
20:00 Sakanako trikitilariak.  
22:00 Zezensuzkoa  
00:00-02:30 Txumari DJ.



# Haize Berriak banda udalarekin kexu

Sakanako musika elkarteak salatu du udalarekin hitzarmena sinatzea luzatzen ari dela. Udaletik jakinarazi dutenez, kultur-erakundeei zuzendutako diru-laguntza deialdia aurki ebatziko dute baina, horretarako, txosten juridiko-ekonomikoa behar da

## ALTSASU

Haize Berriak banda desagertzear. Hori irakurri daiteke Sakanako musika bandak bere sare sozialetan jarritako oharren izenburuan. Haize Berriak bandako kideek diotenez, "parratzen ari garen momentua ez da batere samurra. Aurtengo diru-laguntza oraindik ez dugu jaso". Horrek bandaren ekonomia-egoera "oso larria" izatea eragin duela gaztigatu dute. Haiek agindutako lana urte hasieratik betetzen ari direla, "ezer jaso gabe, zorrez beteta gaude".

Bandakoek jakinarazi dutenez, ilbeltzetik ari dira udalarekin hitzarmena sinatzeko harrema-

netan. "Udalak nahi bezala, 2018ko aurrekoak dioen moduan, dena eginga zegoenean, orain badirudi ekonomia arloan arazoren bat ikusi dutela. Berriz ere guk ordaindu behar". Bandakoak urtero oztupoak jasan beharra dela eta kexu dira eta udalari bere konpromisoak betetzeko eskatu diote. 2016an antzeko egoera izan zen.

Altsasuko alkateak argitu du ez dela hitzarmena. Eta gogorazazi digu udalak urtero arte-erakundeei bideratutako diru-laguntza deialdia egiten duela. Aurtengo deialdia garagarriaren erdialdean egin zen eta 20.000 euroko diru-poltsa zuen, 2017an

baino 7.200 euro gehiago. Alkateak esan digunez, "Kultura Batzordearen eta Tokiko Gobernu Batzordearen bitartez laster diru-laguntza deialdia ebatziko da. Horretarako, txosten juridiko-ekonomikoa beharrezkoa da. Hura eginga dagoen deialdia ebatziko da". Alkateak argitu nahi izan du administrazio-prozedura hori diru-laguntza deialdi horretan eta gainontzekoetan hala dela, administrazio guztietan. Alkateak esan digunez, "ulertzen dut administrazioaren epeak askotan astunak egiten direla, baina diru publikoaren kudeatzailea den heinean, prozedura guztiz beharrezkoa da".

## HARA ZER DIEN

### Zementu-fabriketan erraustearen aurkako estatuko plataformen Koordinakundearen VIII. topaketa

#### HIRU MUGAK BATERA

Koordinakundeak Espainiako Estatu osoko 36 plataforma biltzen ditu eta aurtengo topaketa urriaren 12, 13 eta 14an izango da Ponferradan (Leon). Egitaraua parte-hartzaile talde bikainak osatzen du eta gaika aztertuko dute zementu-fabriketan egiten den erraustetaren egoera eta etorkizunera begira zementugileek dituzten asmoak.

Izan ere, klima aldaketaren aurrean jendearen kezka handiagoa aprobetxatuz, berotegi efektua sortzen duten gasen isuriak murrizteko bideak agertu nahi dute beren burua, eta horrela, hondakinak errausteko deia egin du WCA (zementuaren mundu-elkar-tea) erakundeak, nahiz eta jakin neurriak ez dakarrela berotegi efektua sortzen duten gasen isurpen murrizketarik eta bai, aldiz, herritarren osasunean eragin oso kaltegarria duten beste gai kutsatzaile eta arriskutsu batzuen emisioa. Hauxe izanen da gai gakoe-

tako bat jardunaldietan, eta plataformek daramaten borrokaren esperientziak ere aztertuko dira.

Urriaren 12an goizean Kataluniako, Bierzoko eta Toledoko abokatuek, herritarren ingurumen eskubideen defentsan izandako esperientziak aztertuko dituzte. Arratsaldean, erraustetarik gabeko hondakin kudeaketa proposamen eta udal esperientziak aztertuko dira. Lazio eskualdeko (Erroma) esperientzia eta Zero Hondakin Kataluniar Estrategiak "Birziklapenetik haratago: zero hondakinerantz" eskainiko duen mintzaldian.

Urriaren 13an plataformen antolaketa eta koordinazioa aztertuko da. Arratsaldean zementu-fabriketan erraustearen arriskuak aztertuko dira eta parte hartzaileak izanen dira: Eduard Rodriguez Farré, Fernando Palacios, Carlos Arribas eta Paul Connet.

Hiru Mugak Batera plataformatik, beste behin ere azpimarratu nahi dugu zementu-fabrika bat

dagoen tokian beti egongo dela hondakinak errausteko arriskua. Lortzen dituzten etekinak itzelak dira, nahiz eta instalazioen ingururuko osasunaren kontura izan. Badakigu zementugileek edozer aprobetxatuko dutela noiznahi, berriz ere egitasmo hori martxan jartzen saiatzeko, orain bertan Bierzon gertatzen ari den bezala.

Guk iazko VII. Jardunaldietan jarduera arriskutsu horien aurkako borrokan garaipen garrantzitsuak lortu dituzten beste plataforma batzuekin batera parte hartu genuen bezala, aurtengo Estatuko Plataformen Koordinakundearekin batera lanean jarraituko dugu, badakigulako beti erne egon beharko dugula, beste lurralde batzuetako esperientzietatik zer-ikasiaz badugula eta beti prest egon behar dugula Olaztiko zementu-fabrikak berriz hondakinak errausteko urratsik eman-go balu, erantzun sendoa eta berehalakoa emateko.



Ortzadar elkarteak Ahanzturaren lorratza ikuskizunean. UTZITAKOIA

## Josefina Arregi klinika Ortzadarrekin eskertuta

Elkarteak sortutako "Ahanzturaren lorratza" ongintzako ikuskizuna egin zen Iruñean Klinika laguntzeko

#### ALTSASU

Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak maiatzaren 26an mustu zuen *Ahanzturaren lorratza* ikuskizuna Iruñeko Gaiarre antzokian. Ikuskizuna Josefina Arregi zenaren irudian oinarritu zen eta haren irabaziak Altsasuko klinika psikogeriatria-

koarendako izan ziren. Klinikak egindako lanarekin esker ona agertu du. Gogorazazi du Ortzadarrek modu "altruistan" presatatu zuela ikuskizuna. Gainera, "kudeaketaz eta babesleztaz ere" arduratu zen elkarteak. Ikuskizun "bikaineko" 6.334,36 euroko irabaziak klinikarendako izan dira.



Saharako haurrak behitegia bisitatzeko. Haietako bi Altsasun daude. ELENA ALDASORO

## Saharako haurrak gure artean bisitan ditugu

Nafarroako Sahararen Lagunen Elkartearen (ANAS) Oporrak Bakean ekimenak 20 urte bete ditu aurtengo

#### ALTSASU

Haren bidez, Tindufeko errefuxiatu eremuko 7 eta 12 urte bitarteko 94 haur saharar uda Nafarroan pasatzen ari dira. Hainbat familiak hurrekiko eta saharar herriarekiko elkartasunez, euren etxetan hartzen dituzte haur horiek udan.

Txikiek udan familia bizitzan parte hartzen dute, baina talde jarduerak ere egiten dituzte. Esaterako, hainbat erakunde ezagutzeko bisitak egin dituzte. Eta, atzo bezala, txangoak ere. Lacturalek Etxeberrin duen behitegia bisitatu zuten. Txango gehiago izanen dituzte.



## URTEURRENA



## Gorka Echarri Soto



II. Urteurrena

2016ko abuztuaren 17an hil zen

Orain dela bi urte gure aldamenetik joan zinen, baina, gure bihotzetik sekula ez zara joanen.

Meza abuztuaren 18an, larunbatean, arratsaldeko 18:30etan, Lakuntzako San Salvador elizan ospatuko da.

Zure familia

### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€  
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** **ETXARRI-ARANATZ**  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

## JAIOTZAK

- **Maria Corduneanu**, uztailaren 22an Irurtzunen
- **Lua Seoane Perez**, uztailaren 25ean Altsasun
- **Aran Fernandez Rodriguez**, uztailaren 25ean Irurtzunen

## EZKONTZAK

- **Ekiñe Galartza Cervera eta Jonathan Medina Villacastin**, uztailaren 28an Iturmendin

## HERIOTZAK

- **Simon Flores Lakuntza**, uztailaren 26an Altsasun
- **Antonia Vila Hernandez**, uztailaren 28an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU  
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## OHARRAK

**Telebista saio baterako parte-hartzaile bila:** Iruñerrian emititzen den Xaloe Telebistak Euskal City saioa grabatzen hasi zen Berriozarko egoitzan, maiatzean. Euskal jendea-ri zuzendutako saioa da eta edozein adinetako jendearen bila ari dira, hizkuntzaren ikasketa prozesuarekin zerikusia duten esperientziak elkarbanatuz (nola hasi ziren ikasten, zergatik, etab...).

"Mintzapraktika bat da, baina, grabatuta. Ongi pasatzeko esperientzia bat, euskararen alde egiten den bitartean". Xaloe telebistatik diotenez, "zuen elkarte, herria, enpresa... promozionatzeko edota ikustarazteko, aukera bikaina da". Harremanetarako: xaloeproduktioa@gmail.com edo 948 592 476 telefonoa (Izaskun Artigas)

**Altsasuko 2017ko kintari harrera:** Altsasuko festetan, Irailaren 13an, 10:30ean, 2017an jaiotako kintari harrera eginen dio Udalak. Altsasun errotatuta ez dauden haurrek, zapija jaso eta kintaren lehen argazkian parte hartzeko, agorriaren 24ra arte eman dezakete izena [www.altsasu.eus-en](http://www.altsasu.eus-en).

**Adona. Odol emateak Ziordian:** abuztuaren 7an

17:30-20:30. [www.adona.es/eu](http://www.adona.es/eu)

**Etzarri Aranazko kontsumitzaileen bulegoa.** Irailak 3. Iratxe elkarte kide batek atendiitzen du. Aldez aurretik udaletxean izena eman beharra dago.

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakan-darrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Sakana Trenaren alde.** Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 00 2 173 87 0200346965

**GoiEner. Iruñeko helbide berria:** Kale Berria 111, 31001 Iruña, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

OPATUTAKOAK I  
GALDUTAKOAK

## OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurkoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

[www.iragarkilaburrak.eus](http://www.iragarkilaburrak.eus)

**GUAIXE**  
rekin  
**Hondartzara**

Udako argazki lehiaketa

Irabazi  
2 lagunendako egonaldia  
**Costa Dawradan!\***

Bigarren saria jendeak  
bozkatuena: Errigora saskia  
[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**EROSKI** / bidaiak  
Anetsetan? Egizu legan!

**ERRIGORA**

\*Lastailaren 11 baino lehen disfrutatu behar da

tanatorioak  
**IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



# NON ERABILI?



## JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU  
%5eko deskontua  
50 €tik gorako erosketetan.

## JOSE ITURRALDE TAXIA

IRURTZUN  
%10eko deskontua.

## UHARTE GAZTA

UHARTE ARAKIL  
40 €ko gastuarekin,  
etxeko produktua doan.

## BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN  
Graduatutako eta eguzkitako betur-rekoetan % 10eko deskontua.

## JUGA TAILERRAK

ARBIZU  
Olioa aldatzean  
%10eko deskontua filtroetan.

## ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ  
%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

## EKIN

ALTSASU  
100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

## IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU  
%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan.


## IOSUNE MARAURI

ALTSASU  
Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

## KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU  
15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

## ZORION AGURRAK



**Ekain Nabarro Zabala**  
Zorionak Ekain!  
Besarkada handi bat!  
Ama, aita eta Belatz.


**Harriet Artieda Diez**  
Zorionak maitia! Segi beti bezala, izan zaitetz zu. Irrifartsu, alai, zoriontsu... Asko maite zaitugu. Etxekuek

**Olatz Oroz**  
Zelako uda ari zaren pasatzen, pingotxo!  
Zorionak potxola!!!  
Ondo ospatu!




## EGURALDIA ASTEBURUAN

### Ostirala, 3




Uda giroa izango da gurean. Eguzkia izango da protagonista, eta ondorioz, beroa egingo du egun guztian zehar. Ipar haizeak gogor jo lezake.

### Larunbata, 4




Antzeko giroa izango dugu, beroa izango da, baina hala ere, ipar haizearengatik bero sententzia ez da hainbestekoa izango.

### Igandea, 5



Eguzkiak berriro ere nagusitasun guztia izango du zeruan. Gau partean, tenperatura freskatu egingo da, gau gozoa utziz.

### Astelehena, 6



Hego haizearekin tenperaturek berriro ere gora egingo dute eta oraingoan bero itogarria izan dezakegu, ekaitzen arriskua handituz.

## HURRENGO ASTEKARIA IRAILAREN 7AN

Urtero bezala, abuztuan Guaixe Fundazioak atek itxiko ditu eta irailera arte agurtuko zaituztegu. Azken ale honetan herrietako egitarau guztiak daukazue, abuztuan zehar hemen eta han ibiliko zaretenontzat eskuragarri. Sakanatik kanpora joan behar zaretenoi ongi pasa eta ez ahaztu, irailaren 7an hurrengo alea kaleratuko dugula. Bitartean [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bisita dezakezue eta udako argazki lehiaketan parte hartu.

Zorion agurretan eta iragarki laburretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, irailaren 5erako bidali beharko duzue informazioa. Eskeletarako aldiz, irailaren 6rako.







Ekhi Congilek Hego Koreako Munduko Monoziklo Txapelketa ikaragarria izaten ari dela aipatu digu. EKHI CONGIL

## Ekhi Congil, Munduko txapeldunordea

**MONOZIKLISMOA** Monoziklista etxarriarrak modu ezin hobean ekin die Hego Koreako Ansanen jokatzen ari diren Munduko Monoziklo Txapelketei: errepideko 10 kilometroko munduko txapeldunordea da

Asteazkenean, abuztuaren 1ean hasi zen Munduko Monoziklo Txapelketa Hego Koreako Ansan hirian. Basque Country taldeko ordezkari bakarra lehiatzen dabil bertan, Ekhi Congil etxarriarra. Abuztuaren 1ean errepideko 10 kilometroko txapelketa jokatu zuen Congilek, bere probarik kuttunena, eta bigarren sailkatu zen, irabazlearengandik segundo eskas batzuetara. Hortaz, munduko txapeldunordea dugu Congil, eta Mundialak hasi besterik ez dira egin.

Ansanen sekulako beroa eta hezetasun handia daude, eta panorama horrekin ekin zion Ekhi Congilek errepideko 10 km-ko probari. "Bero eta heze-

tasunarengatik oso proba gogorra izan zen; gorputza ez dut eragile horietara ohituta, baina indarrak atera eta hor ibili nintzen. Gainera, ibilbidea nahiko zaila zen eta monozikloak botek ematen zituen, asfaltoaren ordez baldosen antzeko zorua zuelako. Hortaz ez zen oso proba azkarra izan, munduko errekor bat apurtzeko modukoa, baina proba gogorra, teknikoa eta polita izan zen eta bigarren sailkatu nintzen, txapeldunarengandik 5-10 segundora eta nire kategorian lehendabizikoa. 30 km-ko batez bestekoa egin nuen, txapeldunaren antzekoa. Hau ikaragarria da, eta oso-oso pozik nago" adierazi digu Hego Koreatik Ekhi.

### Geratzen zaizkionak

Probaren ondoren, atseden hartu eta atzera ere entrenatzera joan zen, proba gehiago baititu. Esaterako, atzo, ostegunean, mendi jaitsiera zuen, baina oraindik ez dugu egindako lanaren emaitzaren berririk jaso. Hurrengo egunotan egutegi zabalak dauka Etxarrikoak: cross country proba (abuztuak 6), mendi igoera (abuztuak 6), errepideko 42 km-ko maratona (abuztuak 7), ziklokrossa (abuztuak 8) eta errepideko 100 km-ko proba (abuztuak 10).

Munduko Txapelketan 1.500 monoziklista daude inskribatuta, modalitate guztietan, eta Ekhi oso kontuan hartzekoa da.



UTZITAKOIA

## Orain Europako Txapelketetara

**IRRISTAKETA** Munduko Irristaketa Txapelketak jokatu eta hilabete eta erdira Europako Irristaketa Txapelketak erabakiko dira Belgikan. Garikoitz Lerga Espainiako selekzionatzaileak atzera ere loseba Fernandez iturmendiarra deitu du bertan aritzeko. Munduko 100 metroko txapelduna da iturmendiarra, munduko errekorra apurtu eta gero (9.68 s).

## Kirol begiraleendako TELP tailerra antolatu dute

**KIROLDEGIA** Irailaren 7an eta 8an izanen da, Altsasun. Irailaren 4ra arte eman daiteke izena

Sakanako Mankomunitateko euskara eta kirol zerbitzuek TELP tailerra (Taller d'Espai Lingüistic Personal) antolatu dute irailaren 7an eta 8an Altsasuko Intxostiapunta gaztegunean. Tailer hau Valentzian sortu zuten Ferran Suay eta Gemma Sangines psikologoen, eta Sangines bera izango da Altsasuko tailerra gidatuko duena.

Tailerra kirol begiraleei dago zuzenduta eta helburua da euskaraz lan egiten dutenean maiz sentitzen duten deserosotasuna murriztea. Tailerra Kirola Eus-

karaz egitasmoaren barruan dago kokatuta. Nahiz eta kirol begiraleen artean geroz eta gehiago diren euskaldunak, oso motel doa gora erabilera.

### Irailaren 4ra arte

Irailaren 7an, 15:00etatik 19:00etara eta irailaren 8an, 09:30etik 12:30era izanen da ikastaroa. Matrikulak 20 euro balio du, baina ikastaro osoa eginez gero, dirua bueltatuko da. Izena ematea zabalik dago irailaren 4ra arte (euskara@sakana-mank.eus edo 948 464 866).

**CARNICERÍA I. ARREGUI**  
**HARATEGI ETA URDAITEGIA**  
 Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Ongi pasa festetan!

Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak  
 948 576 067 · Herriko plaza z/g · LAKUNTZA

**HOSTO**

**GORRI**  
altzariak

altzariak eta kortinak

Zugarreta 7 · Etxami Aranatz  
 948 460 359 · 679 414 731  
[www.hostogorri.com](http://www.hostogorri.com)

**IÑAKI**  
BIZARTEGIA  
ILEPAINDEGIA

684 315 869  
 Nagusia 14  
 ETXARRI ARANATZ

KALE TXIKI TABERNA

**ONGI PASA FESTETAN!**

Menu 11 €  
 Asteburuko menua 25 €

Lakuntza  
 Telf: 948 57 60 09





Ziordiko Saskibaloitxapelketan parte hartu zuten gaztetxoak. J.R. RAMIREZ

## Ziordiko 3x3 Saskibaloitxapelketan gustura

**SASKIBALOA** Atikilt, Javier eta Imanolek irabazi zuten torneo eta tiro librean Imanol Ramirez gailendu zen

Igandean Ziordiko txipudiak Ziordiko 3x3 Saskibaloitxapelketan parte hartu zuen, Dravet Sindromearen aldeko torneo solidarioa. 12 gaztek eman zuten izena eta hiru kidez osatutako lau taldek jokatu zuten txapelketa.

### Guztiak elkarren kontra

Talde guztiak elkarren kontra aritu ziren 15 minutuko partidetan eta horrela erabaki zen txapelketa, ligaxkan. Atikilt, Javier eta Imanol jokalariek osatutako taldea gailendu zen (6 puntu), bigarrena Joyk, Jonk eta Egoitzek osatua izan zen (3

puntu), hirugarrena Ikerrek, Luisek eta Alejandrok osatutakoa (3 puntu) eta laugarrena Iñigok, Joek eta Iñigok osatutakoa (puntu gabe).

Eguerdian tiro libreen txapelketa jokatu zen. Imanol Ramirezek irabazi zuen, Jon Sanzen aurretik. Eta bukaeran, Ziordiko Udalak prestatutako auzate ederraz gozatu zuten Ziordiko 3x3 Saskibaloitxapelketan parte hartu zuten guztiak. Antolakuntzatik nabarmendu dutenez, oso giro ona eta kiroltasun handia izan zen txapelketa.



SAKANAKO MANKOMUNITATEA

## Kayakean Altsasun

**KAYAK** Udako kanpainaren barruan Mank-eko kirol zerbitzuak kayak jardunaldia antolatu zuen astelehenean Dantzaleku igerilekuan. 61 neska-mutiek hartu zuten parte. Goizez hobeto aritu zirela adierazi digute Mank-etik, "igerilekua lasaiago dagoelako". Kayak-poloan aritzeko aukera izan zuten ere eta "oso dibertigarria" izan zela adierazi zuten gazteek.

# Osasuna Magnak aurre-denboraldia prestatu du

**ARETO FUTBOLA** Abuztuaren 18an jokatu du lehen lagunarteko partida, Atletico Benaventeren kontra. Tafatransen kontra Nafarroako Kopako finalerdia irabaziko balu, irailaren 7an finala jokatu luke, Altsasun

Talde berdeak zehaztu ditu liga aurretik jokatu dituen lagunarteko partidak. Gutxienez 6 izango dira, eta Nafarroako Kopako finalerdia irabaziz gero, finala jokatu balu, guztira 7.

Abuztuaren 18an talde berdeak Atletico Benavente hartuko du Anaitasun; abuztuaren 21ean Peñiscola taldearen kontra ari-

ko da Peñiscolan; eta abuztuaren 25ean Naturpelt Segovia izango du aurkari Anaitasun. Abuztuaren 30ean, Nafarroako Kopako finalerdia jokatu dute Tafatransek eta Osasuna Magnak Tafallan. Partida irabaziz gero, Nafarroako Kopako final handia irailaren 7an jokatu luke talde berdeak Altsasun, Aspil Vidal

Ribera de Navarra edo San Juan taldearen kontra. Aurre-denboraldiarekin jarraituz, irailaren 1ean Movistar Inter oilarra izango du arerio Osasuna Magnak Torrejonen, eta, bukatzeko, irailaren 4an Imanol Arregiren taldeak Peñiscola Rehabmedic hartuko du Anaitasun.



AMETS

## Yoseikanpaldi arrakastatsua

**YOSEIKAN BUDO** AMETS (Arte Martzialen Euskal Taldeen Sarea) taldeak antolatuta, uztailaren 13tik 15era Ziordiko Amaraunak yoseikanpaldia hartu zuen. Bertan 60 neska-mutikok hartu zuten parte. Gehienak Sakanakoak eta Iruñerrikoak ziren, baina baita

Iparraldeko Bidaxure, Izura edo Pagolatik etorritakoak ere. Antolaketan 5 monitore, 5 sukaldari-garbitzaile eta 3 yoseikan budo irakasle ibili ziren. Yoseikan budo klaseak, herri kirolak eta talde jolasak egiteaz gain, Ziordiko igerilekuetara eta Lezera txangoa egin zuten.

**ARALAR**  
FERRETERÍA · BURDINDEGIA

*ondo pasa festetan*

**LAKUNTZA**  
Uniz kalea, 18 behea  
948 464 806  
administracion@aralarferreteria.com

*Gosariak eta afariak*

**LagunArte**  
taberna

Lakuntza

**IRATXO**  
TABERNA

**ETXARRI**  
**ARANATZ**

*Ongi pasa festetan*





Beñat Katarain lehen korrikalari euskalduna izan zen Andorran eta munduko onenen artean ibili zen. PROZIS ENDURANCE

# Beñat Katarain 13.a Jorneten Comapedrosan

**MENDI LASTERKETAK** Kilian Jornetek errekorra ezarri zuen (2:33:18), Beñat Katarainek ia 15 minututan hobetu zuen bere marka (2:55:35) eta Jose Luis Beraza probako lehen masterra edo beteranoa izan zen (3:15:59)

Igandean Comapedrosa Skyrace mendilasterketa gogor eta ezaguna jokatu zen Andorran, Arinsalen (21 km eta 2.300 metroko desnibel positiboa). Skyrunner World Series edo Munduko Txapelketarako baliagarria da eta munduko mendilasterketa korrikalari onenak bildu ziren, Kilian Jornet handia tartean.

## Jorneten errekorra

Beroak are gehiago gogortu zuen proba. 600 korrikalari baino gehiago aritu ziren, baina ez zen sorpresarik egon eta Jornetek irabazi zuen. La Cerdanya-ko korrikalariak, Pic de les Fonts igo (2.748 m) eta Pla de l'Estany-ra jaitsi eta gero, 10. kilometroan sekulako eraso jo zuen eta ez zion inork jarraitu. Hegan egin zuen Jornetek, Comapedrosa (2.942 m) igotzen sekulako erakustaldia eman zuen eta probako errekorra apurtu zuen (2:33:18). Peronean izandako haustura guztiz osatua duela argi geratu zen, hilabete hasieran Mont Blanc-eko maratoia irabazi baitzuen eta duela aste eskas bat Bob Graham Round lasterketan errekorra apurtu


baitzuen. Pascal Egli suitzarrari hiru minutu (2:36:29) eta Peter Engdahl suediarri sei minutu (2:39:12) atera zizkien. Emakumezkoetan Lina El Kott Helander suitzarrak irabazi zuen (3:03:07).

## Katarain, 13.a eta lehen euskalduna




Beñat Katarain Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen eta aipatzekoa da ikusgarri aritu zela. Aurreko urtean Comapedrosan egindako denbora (3:12:18) ia 15 minututan hobetu zuen Zegaman bizi den lakuntzarrak eta 13.a sailkatu zuen Comapedrosan, probako jokalaririk handienekin batera (2:55:35). Euskal Selekzioko kideen artean lehena izan zen lakuntzarra, probako lehen euskalduna. Ikusgarria benetan. Itziar eta Kima Trofeoa, horietatik dira Katarainen hurrengo helburuak.

Eta bikain aritu zen bestea Jose Luis Beraza izan zen. Uharteko Arakilgo korrikalaria 55.a sailkatu zuen Comapedrosan (3:15:59) eta probako lehen masterra izan zen. Horrela, podiumera igo zen Beraza.

**2018**  
landarte /  
programa de arte  
y ruralidad de navarra /  
nafarroako arte eta  
landatartasun programa

**Nafarroako**  **Gobierno**  
**Gobernua** **de Navarra**

ANTOLATZAILEA: Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua  
LAGUNTZAILEA: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta  
Toki Administrazio Departamentua

Informazio guztia ikusteko:  
   [www.landarte.es](http://www.landarte.es)

### Zer da Landarte?

Landarte Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programa bat da, Foru Komunitateko herrietan kultura berrikuntza sustatzeko pentsatua, bai eta bertakoen partehartze aktiboa eta tailerren gero bateko jarraipena ere kultur ekintzarako ekimen berritzaileak mamitzeko moduko tailer partehartzaileen bidez.

**Aurizberri | Panoramak 18**  
Leire Urbeltz artistaren eskutik, herri honetako liburutegiak Ekialdeko kulturaren gaineko lehi bat irekiko du haren egile sonatuenetako batzuen bidez. Esperientzia honetan poesia, irakurketa eta eszenifikazioa erabiliko dira hartarako.

- Abuztuaren 4, larunbata. 19etan
- Performancea, poesia eta irakurketa > Leire Urbeltz

**Uharteko Arakil | Lehengo aieruak, geroko gogoetak**  
Amaia Molinet Uharteko Arakildarren gidari arituko da herriari buruzko argazki bidezko kontak bat denen artean eraikitzen.

- Abuztuaren 29, asteazkena. 19etan
- Argazkia, jardura performatiboa > Amaia Molinet

**Euji | Tradizio ibiltaria**  
Eugiko gazte jendea inplikatzeko proiektua. Broken Brothers Brass Band arituko da ideia honen eta haren entseguen garapenean gidari. Azken buruan herriko Arma Olan joaldi bat edo "second line" bat egingen da.

- Irailaren 2, igandea. 12etan
- Musika. Kantua, Perkusioa eta haize-tresnak > Broken Brothers Brass Band





Ezkurdia pozik dago Aspen. ASPE

## Ezkurdiak Aspen jarraituko du 2022ra arte

**PILOTA** Arbizuarrak Rezustarekin osatuko du bikoa Gasteizko torneoan eta Zabaletak Altunarekin

Joseba Ezkurdiak Aspen jarraituko du 2022 urtera arte. Asprekin zuen kontratua beste hiru urtetarako luzatu diote arbizuarrari "Oso gustura nago enpresan. Giroa bikaina da eta 2022ra ino berritzea Fernando Vidarteri eskertu nahi diodan pribilegioa da" azaldu du aurrelariak.

Taldeka jokatzeko ari den Bizkaiko Torneoan Koltza taldean dabil Ezkurdi eta bere taldea -Dario buruz buru, Irribarria-Rezusta binaka eta arbizuarrak lau t'erdian- abuztuaren 21ean Bilboko Aste Nagusian jokatu den final handirako sailkatu da, Zabaletaren Sollube taldea txapelketatik utzi eta gero. Anboto izango dute aurkari finalean -Erasun buruz buru, Urrutikoe-txea-Albisu binaka eta Victor kaiolan-.

Gasteizen, igandean Homenaje desafioa jokatu da. Tartean, Elezkano II.ak eta Martijak Arteaga II.a eta Aretxabaleta izango dituzte aurkari. Andra Mari Zuria Torneoa astelehenean hasiko da: lehen finalerdian, Ezkurdiak eta Rezustak Artola eta Larunbe izango dituzte aurre. Asteartean 2. finalerdia jokatu da: Altuna III.a-Zabaleta Olaizola II.a-Albisuren kontra ariko dira. Onenek ostegunean jokatu dute final handia.

## PILOTA Erdoziarren hiru belaunaldi batera Etxarriko festetan

Larunbatean lehertuko da festa Etxarri Aranatz. Herri kirolarien, aizkolarien, pilotarien, palisten eta futbolarien herria da Etxarri Aranatz, eta festetako egitarauan aipatu kirolek euren tokia izanen dute.

Igandean, 12:30etik aurrera, aizkolarien, harrijasotzaileen eta korrikalarien bilgune izango da Etxarriko plaza. Herri kirol apustu konbinatua izanen da, aizkoran, harrian eta lasterka. Horretaz gain, Erdozia familia etxarriarreko aizkolarien 3 belaunaldiren erakustaldia izango da eta horri Sakanako Aizkora Eskolako ikasleen erakustaldia gaineratuko zaio.

Larunbatean festak eztanda egin baino ordubete lehenago, 12:00etan, Etxarriko Gazte Asanbladak antolatutako Festetako Futbito Txapelketako finala jokatu da. Eta baloiarekin jarraituz, asteartean, haurren egunean, Futbol-Plaza Txapelketa hartuko du Etxarri Aranatzek.

Festetako egitarauarekin jarraituz, ostegun eguerdian nesken pala partidak antolatu ditu Gure Pilota Elkarteak Etxarri Aranazko Euskalerrari pilotalekuan. Bestalde, gaur, ostiralekin 19:00etan pilota eta pala partidak antolatu ditu Gure Pilota Elkarteak.

# Otadiko Kristo Deuna Torneoa, nobedadeekin

**PILOTA** Aurten Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajaukuk antolatu dute torneoa elkarlanean eta emakumezkoak arituko dira lehenengoz. Hiru mailatan jokatu da txapelketa eta 3 jardunaldi eta festetako final handia izango ditu

Nobedadez beteta dator Otadiko 49. Kristo Deuna Pilota Txapelketa beteranoa. Orain arte Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen zuen txapelketa, baina aurten Pilotajauku klubarekin elkarlanean egin dituzte antolakuntza lanak. Eta, bestetik, lehenengoz emakumezkoen parte-hartzea izango du txapelketak.

### Hiru mailatan, 3 jardunaldi

Hiru mailatan jokatu da Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Jubenilen mailan hiru biko lehiatuko dira, Osa-Elizegi, Agirremalloa-Ibarloza eta Olaetxea-Lazkoz, azken hauek sakandarrak. 23 urtez azpiko afizionatuetan ere beste hiru biko aterako dira Burunda kantxara: Zubizarreta-Garmendia, Alderdi-Alduntzin eta Mata-Olaizola. Bukatzeko, emakumezkoetan Miren Larrarte-Alba Martinez, Nora Mendizabal-Narrea Agirre eta Sonia Alonso-



2017ko Otadiako txapelketa. SDA

Irati Igoa ariko dira, azken hauek sakandarrak. Multzo bakoitzean denak denon kontra ariko dira hiru jardunalditan, eta onenek jokatu dituzte Altsasuko festetan irailaren 15ean jokatu diren finalak.

## Kristo Deuna

49. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa.

### 1. jardunaldia (Abuztuak 25, 21:30ean)

- **Emakumeak:** Larrarte-Martinez / Alonso-Igoa
- **Gazteak:** Osa-Elizegi / Agirremalloa-Ibarloza
- **23 azpikoak:** Zubizarreta-Garmendia / Alderdi-Alduntzin

### 2. jardunaldia (irailak 1, 21:30ean)

- **Emakumeak:** Larrarte-Martinez / Mendizabal-Agirre
- **Gazteak:** Agirremalloa-Ibarloza / Olaetxea-Lazkoz
- **23 azpikoak:** Mata-Olaizola / Alderdi-Alduntzin

### 3. jardunaldia (irailak 8, 21:30ean)

- **Emakumeak:** Mendizabal-Agirre / Alonso-Igoa
- **Gazteak:** Osa-Elizegi / Olaetxea-Lazkoz
- **23 azpikoak:** Mata-Olaizola / Zubizarreta-Garmendia



UTZITAKOA

## Olazti, pilotarien bilgune

**PILOTA** Larunbatean bi pilota txapelketetako finalak jokatu ziren Santa Ana festetan murgilduta zegoen Olaztin. Goiz partean Sakanako Udako Pilota Txapelketako finalen txanda izan zen. Aipatu txapelketan Sakanako Pilota klubetan trebatzen diren gaztetxoek hartu dute parte eta larunbatean, aurrebenjaminetatik gazteen mailara, guztira 9 final jokatu

ziren Olaztin. Bukaeran sari ematea izan zen eta, tartean, Joseba Ezkurdi egon zen sari emate ekitaldian, etorkizuneko pilotarien gozamererako. Arratsaldean, aldiz, San Migel Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren. Kasu honetan, hiru final egon ziren jokoan, 3. mailakoa, 2. mailakoa eta 1. mailakoa.





Nafarroako selekzioa Txuma Memorialeko talderik onenaren saria jasotzen. Eskuinean Mintegi, probako bigarrena. UTZITAKOIA

## Iker Mintegi bigarrena Txuma Memorialean

**TXIRRINDULARITZA** Kadeteen Txuma Memorialean Mintegi bigarrena sailkatu zen, Igor Arrietak etapa garaipena eta mendiko saria lortu zituen eta Nafarroako selekzioa talderik onena izan zen. Bestalde, Berako Saria Aitor Alberdik irabazi zuen

Aurreko ostiraletik igandera kadeteen mailako VII. Txuma Memorialeko jokatu zen Bizkaian, Nazioarteko Hiru Egunak izenarekin ere ezaguna den proba prestigiotsua. Bertan Nafarroako kadeteen selekzioa aritu zen. Selektzioa 6 kideetatik 4 Sakanako taldeetan aritzen diren txirrindulariak ziren: Iker Mintegi, Igor Arrieta eta Hugo eta Unai Aznar. Haiei Iker Seminario eta Jon Jurio batu zitzaizkien.

Nafarroako selekzioak primerako lana egin zuen. Bigarren etapian Iker Mintegik ihes egin zuen, baina etapa bukaeran beste bi txirrindularik aurreratu zuten. Hala ere, Altsasukoa sailkapen orokorrean bigarrena

kokatu zen. Hirugarren etapian arerioek begi zorrotzez zaindu zuten altsasuarra eta ez zuen erasorik egiteko tarterik izan. Igor Arrietak, aldiz, ihes egiteko aukera izan zuen eta hirugarren etapa irabazi zuen eta, horretaz gain, Txuma Memorialeko mendiko sailkapena irabaztea lortu zuen uhartearrak. Iker Mintegi Txuma Memorialeko txapeldunordea izan da, Academy taldeko Migel Angel Mera txapeldunetik 23 segundora eta probako lehen euskalduna. Eta Nafarroako selekzioa probako talderik onena. Hugo Aznar zortzigarrena, Igor Arrieta 30.a eta Unai Aznar 35.a sailkatu ziren.

### Alberdi Beran txapeldun

Esprintean erabaki zen kadeteen Berako lasterketa eta azkarrena Intersport Irabiako Aitor Alberdi arbizuarra izan zen (1:06:05), bere taldekide Martzel Etxeberriaren aurretik. Quesos Albenizko Jon Chamorro 7.a sartu zen, Intersport Irabiako Jon Erdozia 9.a eta bere taldekide Mikel Lizasoain 14.a. Talde onena, Irabia.

## Iruñeko Itzulia asteazkenean Etxarri Aranatzan

**TXIRRINDULARITZA** Itzuliko bigarren etapa Etxarri Aranatzan jokatu da, asteazkenean, 17:00etatik aurrera

Junior mailako tropelarendako ezinbesteko proba da Iruñeko Itzulia eta txirrindulari onenek hartuko dute irteera asteartean Cordovillan hasi eta ostiralean Iruñean erabakiko den itzulian.

Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko txirrindulariek, Josu Etxeberria buru, eta Burunda klubeko Quesos Albenizko txirrindulariek, Ailetz Lasa taldeko, ez dute huts egingo. Asteazkenean junior mailako proba ezagunaz gozatzeko aukera izango dugu, itzuliko 2. etapa Etxarri Aranatzan jokatu baita. Sakanako etapa antolatzeko Aralar klubaren laguntza izanen du Ermitagaña Txirrindularitza Talde antolatzaileak.

### Etxarri: Lizarragako Katea behin eta Unanuko gaina beste behin

Etxarri Aranazko etapian aldatetarik sartu dituzte aurten. Horrela, 17:00etan Etxarritik aterata, Arbizura joango dira txirrindulariak, Lizarragabengoitik pasa eta berriz Etxarriara; ondoren, Iturmendiraino joko dute, buelta hartu eta Uharteko Arakileraino; handik buelta hartu eta Arruazun eskuinera egingo dute, granjetako bidetik Lakuntzara heltzeko. Han, Abarrategi kalean, esprint berezia jokatu da. Lakuntzatik Arbizuraino iritsiko dira, Lizarragabengoako bidea hartu eta handik buelta eginez Etxarriara helduko dira. Etxarritik lehen mailako Lizarragako katea igotzeari ekinen diote eta ondoren

Arbizura jaitsiko dira, Lizarragabengoitik atzera ere Etxarri-raino heltzeko. Etxarri Unanuko bidea hartuko dute, Unanuko portua (2. maila) igotzeko. Arbizura jaitsi ondoren, Lizarragabengoitik Etxarri-raino igoko dira txirrindulariak, zuzenean helmugara, 79 km-ko proba osatuta.

Aurreko urtean Victor Alvaro Construcciones taldeko Urko Senperenak irabazi zuen Iruñeko Itzuliaren barruan Etxarri Aranatzan jokatu da etapa. Iazko hirugarren etapa Josu Etxeberria iturmendiarrak irabazi zuen, sekulako erakustaldia emanda. Azkenean, Cartagena taldeko James Mitri britainiarrak irabazi zuen 2017ko Iruñeko Itzulia eta Josu Etxeberriak mendiko txapelketa irabazi zuen. Ea aurten zer gertatzen den.

### Lakuntzan kadeteen lasterketa festetan

Lakuntzako festetan, bosgarren urtez jarraian, kadeteen mailako lasterketa jokatu da. Agorriaren 28an izanen da proba, asteartearrekin, 17:00etan.

### Etxeberria 9.a Eukadiko Junior Txapelketan

Astelehenean Euskadiko Junior Txirrindularitza Txapelketa jokatu zen Ugao-Miraballesen. Esprintean Basati Bike Busturia taldeko Lander Lartitegi gailendu zen (2:54:23). Intersport Irabiako Josu Etxeberria 9.a sailkatu zen, 2 segundora.

## Movistar Toureko onena

**TXIRRINDULARITZA** Skyko Geraint Thomasek merezimendu osoz irabazi zuen aurtengo Tourra. Jose Luis Arrietak zuzentzen duen Movistar Team izan zen talderik onena eta Imanol Erbitik talde lan bikaina egin zuen bertan. Hiriberrikoa 77.a sailkatu zen sailkapenean eta Bahrain Meridako Gorka Izagirrek 24. postuan despeditu zuen Tourra.







Preferentetik erregional mailara jaitsi da Lagun Artea.

## Lagun Artea erregionalera eta Altsasu jubentzen 2. mailara

**FUTBOLA** Nafarroako Futbol Federaziotik gure taldeek maila horietan jokatu dutela konfirmatu digute

Lakuntzako Lagun Artea futbol taldeak maila galdu du eta 2018/2019 denboraldian erregional mailan jokatu du, Altsasurekin batera. Eta jubentzen mailako Altsasu ez da mailaz igoko eta 2018/2019 denboraldian jubentzen 2. mailan ariko da. Hori baieztatu digute Nafarroako Futbol Federaziotik.

### Lagun Artea mailaz jaitsi da

Lagun Artea preferente mailako ligan 13. postuan sailkatu zen (32 puntu). Hortaz, 2B mailan, 3. mailan eta Maila Autonomikoan zer gertatu zen esperoan geratu zen Lagun Artea, 2B mailan nafar talderen bat mailaz jaitsiko balitz edo 3. mailatik nafar talderen bat mailaz igoko balitz, eskailera efektua izango zuelako. Tamalez, azkenean ez da posible izan eta Lagun Artea preferente maila galdu du, nahiz eta tartean Oberenak errekurso bat aurkeztu, aurrera aterako balitz Lagun Artea eragina izango lukeena. Hortaz, mailaz jaitsi eta 2018/2019 denboraldian erregional mailan ariko da Lakuntzako taldea, Altsasu taldearekin batera. Etxarri Arantz izango da preferente mailan jarraituko duen talde sakandar bakarra.

### Altsasuko jubentzen kulebroia

Nafarroako Futbol Txapelketako jubentzen mailan gertatutakoak ere bazterrak astindu ditu. Jubentzen 2. mailan zebilen Altsasu igoera fasea jokatetik kanpo geratu zen eta Kopa jo-

katzeari ekin zion. Baina ligako azken partidaren San Jorgek eta Zizurrek ustezko iruzur bat egin eta partida berdintzeko ados jarri ote zireneko salaketa aurkeztu zen Nafarroako Futbol Federazioan. Ligako azken partidako berdinketari esker San Jorgek igoera faserako sailkatzea lortu zuen. Gauzak horrela, federazioak santzioa jarri zien bi taldeei eta hiruna puntu kendu zizkien. Puntuazio berriarekin, Zizurrek igoera faseari eusten zion, baina San Jorge igoera fasea kanpo geratu zen eta Altsasu, aldiz, igoera fasean sartzen zen. San Jorgek eta Zizurrek erabakia errekurritu zuten Nafarroako Futbol Federaziotik apelazio batzordera, gaia Nafarroako Kirol Justiziako Batzorde Gorenera pasatu zen, eta tarte horretan, inolako erabakirik hartu gabe, Altsasu eta San Jorge igoera faseko eta kopako partidari jokatu gabe geratu ziren, esperoan.

Nafarroako Futbol Federaziotik erantzun digute hurrengo denboraldian Altsasuk jubentzen 2. mailan jarraituko duela. Kontua da eurekin zerikusirik ez zuten auzian harrapatuta geratu zirela altsasuarra, hiru hilabete baino gehiago jokatu gabe.

### Mulier vs Alaves, Altsasun

Abuztuaren 10ean, ostiralarekin, 20:00etan, emakumezkoen 2. mailako Mulier eta Deportivo Alavesen arteko lagunarteko partida jokatu da Dantzaleku futbol zelaian.

# II. Irurtzun-Arakil Rallysprinta prestatzen

**AUTOMOBILISMOA** Arakil Motorsportek eta Nafarroako Federazioak antolatuta, irailaren 1ean jokatu da, 13:00etatik aurrera, eta Nafarroako Rally Txapelketarako baliagarria izango da. Izena ematea zabalik dago abuztuaren 24ra arte

Arakil Motorsportek eta Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatuta, irailaren 1ean II. Irurtzun-Arakil Rallysprinta jokatu da, Nafarroako Rally txapelketarako baliagarria. Bertan parte hartu nahi duten taldeek izena ematea zabalik dute abuztuaren 24ra arte [www.fotomotor.es](http://www.fotomotor.es) web gunean. Egun horretan bertan antolakuntzak probak izango duen ibilbidea argitaratu du Nafarroako Automobilismo Federaziotik [www.fenauto.com](http://www.fenauto.com).

Irailaren 1ean autoak goizeko 08:00etan hasiko dira iristen Irurtzunge plazara, hori izango baita probako parke itxia. Bertan egingo zaizkie egiaztapen tekniko eta administratiboak. Autoen asistentzia gunea Irurtzunge kiroldegiko parkingean egonen da. Lehen ibilgailuak 13:00etan ekingo dio probari. TC1 mailakoak aterako dira lehenengo, TC2 mailakoak segidan eta TC3 mailakoak azkenik.



Javier Goikoetxea eta Roland Holke auto barruan. HOLKE

## Holke eta Goikoetxea 3.ak Lesakan

Uztailaren 22an XV. Lesakako Hiria Rallysprinta jokatu zen. 66 talderen artean 39k lortu zuten proba despeditzea. Joseba Beola eta Jose Luis Irtzoki izan ziren azkarrenak (Mitsubishi Lancer Evo X, 25:02). Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarra Roland Holke pilotuarekin aritu zen (Citroën DS3 R3T) eta lan bikaina egin zuten biek, hirugarrenak sailkatu baitziren (25:58).

## Nafarroako Herri Kirol Proba Konbinatuen finala, Lakuntzan

**HERRI KIROLAK** Lakuntzako festetan jokatu da, abuztuaren 26an, igandearekin, 18:00etan

Lakuntzako festetan aurten aizkolarien orde herri kirol proba konbinatuen alde egin da. Zehatzago izanda, Nafarroako Herri Kirol Proba Konbinatuen Txapelketako finala jokatu da Lakuntzan, abuztuaren 26an, 18:00etatik aurrera.

### Festa bezperan Guardetxe Igoera

Azken urteetan Lakuntzako festetan hasiera egunean, larunbat goizean jokatu zen Zabalarte elkarteak antolatutako Guardetxe igoera. Antzinako apustuaren

oinarrituta, Lakuntzako plazatik atera, Aralarerantz jo eta Guardetxera igotzea eta jaitea da erronka. Baina aurten igoera aurreratzea erabaki da eta ostiral arratsaldean, abuztuaren 24an, 19:00etan, jokatu da. Aurreko urtean Luis Areta eta Xue Lazkano izan ziren garaileak. Aipatzekoa da abuztuaren 25ean, larunbatarekin, 12:30ean hasiko direla ofizialki Lakuntzako festa. Ordu eta erdi lehenago, 11:00etan, Biltoki Areto Futbol Txapelketako finalak jokatu dira.

## AIZKORA Goizeder Beltza Euskal Herriko III. Mailakoan

Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketan arituko da Goizeder Beltza aizkolaria etxarriarra. Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu du, abuztuaren 26an, Gorritin, 12:30etik aurrera.

Kanporaketa horretan 13 aizkolaria lehiatuko dira: Luis Polanco, Jon Rodriguez, Juan Rodriguez, Hodei Ezpeleta, Done Intxausti, Daniel Lopez, Esteban Muñiz, David Naredo, Jon Telletxea, Eneko Saralegi, Aitor Urteaga, Jokin Alkizaletxe eta Goizeder Beltza. Lau kanaerdiko erdibitu beharko dituzte eta sailkatutako lehen hirurek final handian jokatze txartela lortuko dute.





2017ko edizioako Ezin zailago Zirku Jaialdiaren emanaldia. ARTXIBOA

## Hamaiseigarrenez zirku ikuskizunak Altsasuko kaletan

Irailaren 1ean izanen dira Ezin zailago Nafarroako Zirku Jaialdiaren emanaldiak lortiko zabalgunean, 18:00etan

### ALTSASU

Beste urte batez iritsiko dira Altsasura malabaristak, pailazoak, kontortzionistak, musika, dantza eta zirkuaren beste hainbat ekimenak. Ezin zailago Nafarroako Zirku Jaialdiaren 17. edizioa irailaren 1ean eginen da Sakanako herrian, izan ere, urtero bezala zirku jaialdiaren bost egoitzetako bat izanen da Altsasu. Iortiko zabalgunean izanen dira hiru zirku emanaldiak irailaren 1ean, 18:00etatik aurrera. Arratsaldean hiru ikuskizun eginen dituzte: Shakti Olaizola taldearen *Baldin Bada*,

Capicua konpainiaren *Koselig* ikuskizuna eta La banda del otra konpainiaren *Yee Han* emanaldia.

Ezin zailago XVII. Nafarroako Zirku Jaialdia antolatuko Tuterako, Uharteko, Viako, Altsasuko eta San Adriako udalek bat egin zuten. Bosten artean antolatzen dute jaialdia. Hortaz, abuztuaren 29an kale ikuskizunak Tuteran hasiko dira eta irailaren 1ean iritsiko dira Altsasura. Ezin zailago Nafarroan ibilbide luzeen duen kale-programaziotako bat da.

## Zirku ikuskizunak

### Baldin bada

Shakti Olaizolaren ikuskizun honetako protagonistan emakume bat eta gizon bat dira. Emakumea margolaria da eta gizona musikaria. Hainbat abilezia-ariketen bidez euren astakeriak eta erokeriak ezagutaraziko dituzte eta errealitatea amestu eta marrazteko gaitasuna gogoraraziko dute. 18:00etan, 45 minutuko ikuskizuna.

### Koselig

*Capicua* antzerki taldeak zirku, antzerkiaz, umorez eta magiaz beteriko obra eskainiko du. Denborarekin pertsonak aldatzen diren arren hainbat gauza berdin gelditzen direla erakutsi nahi dute: sentimenduak eta pertsonen arteko harremanak. Elkarrekin bizitzea eta bizirik irautea dela helburua irakatsiko du taldeak. 18:50ean, 50 minutuko ikuskizuna.

### Yee Han

*La banda del otra* konpainiak musika, zirku eta umorea uztartuko ditu mendebaldeko hiru gaizkile protagonista diren ikuskizunean. Gaizkile hauek ikusleei zerbait lapurtu nahi diete: algarak eta bandako kide egiteko trikimailu guztiak erabiliko dituzte. 19:50ean, 50 minutuko ikuskizuna.

## Musikarekin amaitu zuten

Ikasle Abertzaleak taldeak antolatutako Eskola Ibiltaria ostiralean amaitu zen Altsasan. Azken hausnarketarako eta prestakuntzarako saioen ondoren, kontzertu eskaintza zabala izan zen herrian prestatutako bi guneeetan: plazan eta Gaztetxean. Taldeen artean Nafarroa 1512 Oi! talde arbizuarra aritu zen Altsasuko plazan.



## 'Memoria duten' industria paisaien edertasunaren bila

*Memoria duten paisaiak* argazki lehiaketa antolatu du Nafarroako Gobernuak. Administrazioaren Artxiiboak *Memoria duten paisaiak* izeneko proiektua sustatu du eta, proiektuaren barnean, argazki lehiaketa antolatu du. Argazki lehiaketaren gaia paisaia industrialak dira eta helburua da irudiaren bidez herritarrak Nafarroako azpie-


gitura industrialaren ondare-balioaz sentsibilizatzea. Hortaz, aurkezten diren argazkiek XIX. mendearen amaieraz gerotik Nafarroa eraldatu eta paisaia aldatzen lagundu zuten lantegi eta azpiegiturak islatu behar dituzte. Irailaren 28ra arte dago lehiaketan parte hartzeko aukera eta lanak Iruñeko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Erregistroan aurkeztuko dira. Oinarriak Nafarroako Gobernuaren web orriko Kultur sailean daude.



BAZTERRETIK

JOSE LUIS ASENSIO

## Udan irakurtzeko komikiak



Aurtengo ikasturtea bukatuta, komikien munduan ere hurrengoan pentsatzen hasi beharrean gaude. Oraindik zenbait aste falta diren arren, gertu izango ditugun bi ekitaldi aurreratuko dizkizuet, eta horietan protagonista izango diren egile eta komikiak ezagutzeko aprobetxa dezakezue uda.

Hasteko, irailean Nafarroako IX. Komiki Topagunea izango dugu. Zenbait urte dira lehenengo edizioa ospatu zenetik eta bidean hazi egin den arren,

aurten berriro Iruñeko Kondestable jauregira bueltatuko da ekitaldia nahiz eta zenbait gauza Civicen aretoan ospatuko diren.

Komiki topagunean izango diren egile eta lanen artean honakoak dira nire ustez aipagarrienak: *Corto Maltes* pertsonaia Hugo Prattek asmatu arren, orain Ruben Pellejero egileak egiten ditu eta topagunean izango da. Berarekin Natacha Bustos (Marvel argitaletxeko egilea), Mamen Moreu (El Jueves-eko *Marcela* pertsonaiaren sortzailea), Alvaro Ortiz (*Cenizas eta Murderabilia* komikien sortzailea) eta Belatz egongo dira. Belatzek Lucio anarkistaren biziaren inguruko komikia argitaratu berri du, eta dirudienek ikuspuntu pertsonalago bat ematen dio historiari.

## Zeltik-parranda Etxarri Aranazko eta Lakuntzako plazetan

Beietz! talde arbizuarrak folk musika beste hainbat estilorekin uztartzen du: Zeltik-parranda egiten du. Taldekideen helburua musika egiten ongi pasatzea da, baina kontzertuak egiteko prest daude ere, hortaz, Etxarri Aranazko festetan egonen dira abuztuaren 9an, ostegunean, 13:00etan, plazan. Lakuntzan abuztuaren 26an egonen dira.

Bestalde, urrian Yamaguchi liburutegiak urtero antolatzen duen komiki tertulia hasiko da. Ikasturte osoko programazioa zehaztua egon arren, lehenengo hiruhilekoan eztabaidatuko diren komikiak aurkeztuko dizkizuet. Urrian, zientzia fikzioa izango da protagonista eta David Sanchez egilearen *Un millón de años* eta J. Lemire egilearen *Descender* sagaren lehenengo atala irakurriko dira.

Urrian Asiari buruzko gaia landuko da eta horretarako A. Ducoudray-ren *El cumpleaños de Kim Jong II* eta Sonny Liew egilearen, *El arte de Charlie Chan Hock Chye* obrak landuko dira.

Abenduan munstroei buruz hitz egingo da, eta horretarako J.C Iglesias egilearen *Mary Shelley, la muerte del monstruo* eta Emil Ferris egilearen *Lo que más me gusta son los monstruos* lanak eztabaidatuko dira.

Tertulian lantzen diren komiki gehienak, Yamaguchi liburutegian egongo dira eskuragai maileguan.





Txu&amp;Txu ikuskizuna. I. BENGOETXEA

## Bi pertsonaren artean sortzen diren harreman mutuak

Etxarrenen mustu zuten Arangoak eta Larreak 'Txu&Txu' lana. Hainbat herritan egonen dira

### IRURTZUN

Bi bizilagunen arteko harremana islatzen du Txu&Txu Lorena Arangoaren ikuskizun berriak. "Hasieran maitasuneko istorio bat dela pentsa daiteke, baina ez", azaldu du Arangoak. Patxi Larrearekin sortu du ikuskizuna. Ikuskizun "freskagarria da, literalki", udarako aproposa. Adin guztietarako ikuskizuna da.

Txu&Txu Klown ikuskizuna da, hitzik gabe egiten dena. "Ni euskalduna naiz eta Patxik ez daki euskaraz, eta nahi genuen edonork ulertu zezakeen ikuskizuna egin". Hortaz, hizkuntza unibertuala erabiltzea erabaki zuten: "keinuak denok ulertzen ditugu".

Romeo eta Julietaren istorioa abiapuntua izan zen Arangoaren azken ikuskizuna sortzeko. Hori hartu eta "jolasten eta inprobisatzen" hasi ziren bi aktoreak. "Eszena bat hartzen dugu eta horren gainean inprobisatzen hasten gara.

Arakilgo hainbat herritan egonen dira. Abuztuaren 11n Satrustegin egonen dira Txu&Txu ikuskizuna egiten. 20:00etan izanen da emanaldia, herriko plazan. Abuztuaren 17an Irurtzungo igerilekuan egiten dute ikuskizuna, 22:00etan.

# "Ateak itxi behar dira beste batzuk irekitzeko"

IÑIGO MUÑOA EL MUERTO VIVO TALDEA

Arrebote taldean eta Hi de bei proiektuan egon ondoren, Iñigo Muñoz proiektu berri batean murgildu da. El Muerto Vivo sortzen bi urte pasa ditu, puntako musikariek

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Noches de verano abestia kaleratu du, diskoaren aurrerapena dena. Irailean kaleratuko du diskoa El Muerto Vivo Iñigo Muñozaren musika talde berriak. Proiektuan Peio Reparaz eta Paxkal Etxepare daude eta musikariak Jorgito (bateria), Iban (gitarra) eta Louse (baxua) dira.

ww

**El Muerto Vivo taldea sortu duzu. Nola sortu zen proiektua?**

Kasualitatez sortu zen. Arbizuko lagun batek nire diskoak Peio Reparazi pasa zitzaizkion eta asko gustatu zitzaion eta proiektu berri bat egiteko deitu zidan. Ekoizpenaz bera arduratuko zen eta Paxkal Etxeparek ere parte hartuko zuen. Etxeparek Vendettako hainbat disko grabatu ditu. Hiruon artean hasi ginen ilusio handiarekin proiektua garatzen. Bi urte iraun du sortze prozesuak, proiektuaren eman nahi genion forma zehazten eta gauzak nola izan behar ziren argi izateko. Azkenean, irailean kaleratuko dugu diskoa hamar abestiek. Kontzertuekin ere irailean hasiko gara.

**Momentuz abesti bat kaleratu duzue: Noches de verano. Taldearen ildoak markatzen du?**

Ildoa betikoa da. Runba egiten dugu. Agian estiloa desberdina



El Muerto Vivo taldea. GAIKA PEÑAFIEL

## "BARRUAN DUDANA KANPORATZEN DUT LETREN BIDEZ, EZ DUT GAI BAT PENTSATZEN LETRAK SORTZEKO"

da. Izan ere, beste musikari batzuk dira, nire ahotsa ere pixka bat aldatu da... Baina, oinarrian runba dago. Runban sentitzen naiz erosoan. Hala ere, abesti geldoagoak eta beste estiloko batzuetakoak daude diskoan.

**Zer kontatzen du abestiak?**

Barruan dauzkadan gauzak ateratzen ditut. Ez dut gai bat jartzen abesti bat egiteko. Esaldi batek beste batera eramaten nau eta horrela sortzen ditut. Abestiak nik idatzi ditut. Ekoizpen lanetan Peio Reparazek lagundu dit eta letra batzuk ere egin ditu. Baina esan daiteke abestiak nireak direla.

**Bideoklipa ere sortu duzue. Nola deskribatuko zenuke?**

Beti desberdina. Ttaun enpresarekin egin dugu eta oso gustura aritu gara. Tratua oso ona

izan da. Lizarragabengoan grabatu genuen eta herriko jendeak parte hartu zuen. Arbizuko jendeak ere asko lagundu du. Beti bezala, ilusioz.

**Taldearen izena kuriooa da, nondik dator?**

Gauza asko esango nituzke, baina laburbilduta 21 urterekin trenak harrapatu ninduen. Eta hortik etor daiteke. Peret runba egiten hasi zen, runba katalana delakoa, eta hortik ere hartzen du. Izena asko gustatzen zitzaidan, eta zergatik ez? Bizitza honetan batzuetan behean zaudete, eta beste batzuetan goian. Eta aurrera segi behar da. Esaten duten moduan ateak itxi behar dituzu beste batzuk irekitzeko.

**Sakanako runba sortu duzula esan daiteke?**

Asko esatea da. Nork bere runba sortzen du. Bere egiteko formak ditu, abestiak sortzeko modua eta abesteko forma ere nork berea du. Norberaren sena eman behar zaio. Kopia bat bazara ez diozu inori ezer esango. Esango dute: hau bestea bezalakoa da. Saiatu behar dugu gure nortasuna ematen.

**Zertan da ezberdina proiektu hau aurrekoetatik?**

Proiektu hau profesionalagoa da. Denbora gehiago eman dugu proiektua eta diskoa prestatzen, bi urte egon gara. Eta hori azkenean asko nabaritzen da. Helburua bera da: musika egitea, jendeak zure musika ezagutzea eta ondo pasatzea. Nik nire lana daukat eta hau zaletasun bat da. Nik beti ilusioz hartzen ditut proiektuak. Gauza bat egitean ilusioa eta gogoia ezinbestekoak dira. Musikaren mundua horrelakoa da, Azkenean zuk zurea egiten duzu, eta kito.

## Udako irudiaren bila, Guaixeko Argazki Lehiaketaren bitartez

Argazkiak partekatzeak saria izan dezake Guaixeko Udako Argazki Lehiaketan. Irailaren 3a arte dago aukera

SAKANA

Uda iritsi da eta harekin oporren garaia. Han edo hemen egon, urrutira bidaiatu edo gertura joan, ziur hamaika argazki egiten dituzuela argazki kamerarekin zein telefono mugikorra-

rekin. Izan ere, gaur egungo zenbait telefonok argazki kamera batzuek baino kalitate hobea eskaintzen dute.

Argazki horiek ordenagailuan edota telefonoan ez gelditzeko, Guaixek plazaratzeko aukera

ematen dizu: Udako Argazki Lehiaketa prestatu du. Argazkia igo, lehiaketan parte hartu eta bi sari irabazteko aukera izanen duzu.

Bi sari egonen dira. Epaimahaiak aukeratutako udako argazki hoberenaren egileak Costa Dauradan bi heldurendako eta haur batendako 7 eguneko egonaldia irabaziko du. Egonaldia irailaren 15etik urriaren 11ra egin daiteke. Bigarren saria www.guaixe.eus web orriko erabiltzaileek aukeratuko dute

bozkaren bidez. Irailaren 3tik 7ra arte egonen da bozka emateko aukera.

Lehiaketan parte hartzea oso erraza da: zauden tokian zaudela argazkia atera, www.guaixe.eus web orrira sartu eta bertan lehiaketari eskainitako lekuan argazkia igo. Pertsona bakoitzak gehienez bi argazki igo ditzake eta argazkia igotakoan web orrian ikusgai egonen da. Irailaren 3ko 12:00 arteko epea dago argazki lehiaketan parte hartzeko.



## 11 GALDERA

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

**1 Hilabete baino gehiago geratzen da, baina dagoeneko hasi zarete Herri Bazkaria prestatzen.**

Badirudi festen aurretiko hilabete bateko gauza dela, baina urte osoa pasatzen dugu elkartzen. Elkartea sortu dugu eta, gainera, mahaiak eta eserlekuak udalaren bajera batean gordetzen dira eta horren arduradunak gara.

**2 Herri Bazkaria 2012an hasi zen egiten eta garai hartan hainbat erakundek prestatzen zuten. Zuek erroka hartu zenuten gero.**

Aurten gure hirugarren bazkaria izanen da. Helburua Altsasuko zerbitzu izatea da. Elkartea sortzeko izen bat behar zen eta Altsasu Auzolanean Eraiki jarri genion. Nahi duen guztiak parte har dezake, nahi duenean.

**3 Zenbat mahaikide izaten dituzte bazkariak?**

2016an 800 pertsona etorri ziren. Bigarrenen, iaz, 1.000 pertsona etorri ziren eta jendea kanpoan gelditu zen. Aurten 1.100 pertsonatara iritsi nahi dugu, baina zerbitzariak kontua hartuz gutxira 1.200 pertsona inguru egotea espero dugu. Horretarako 120 boluntario inguru behar ditugu.

**4 Boluntarioek zer lan egiten dituzte?**

Sukaldea 15 pertsonak osatzen dute, eta beteta dago. Muntatze lanak egiteko 20 bat pertsona behar dira, baita desmuntatzeko beste 20 bat pertsona behar dira ere. Zerbitzatzeko gutxienez 40 pertsona behar dira. Azkenik, platerak garbitzeko 20 bat pertsona behar dira.



Altsasu Auzolanean Eraiki elkarteko kideak.

# "Jendea ez bada animatzen Herri Bazkaria galduko da"

Altsasu Auzolanean Eraiki elkarteak Altsasuko Festetako Herri Bazkaria antolatzen du. Herri Bazkaria handitzen joan da, eta, gaur egun, festetako ekitaldi jendetsuena da. Dagoeneko hasi dira Herri Bazkaria prestatzeko behar dituzten 120 boluntarioak bilatzen.

**5 Boluntarioek egitekoa aukeratu dezakete?**

Tabernetan izena emateko aukera dago eta norberak aukeratzeko zein taldeetan eman nahi duen izena. Garrantzitsuenak kolaboratzea da. Taldeak osatzeko asanblada irekia egiten dugu abuztuaren 25ean. Desmuntatzea eta zerbitzatzeko taldeetan behar da jende gehien.

**6 Zer ematen du boluntario izateak?**

Herriko festa bat da, herriarendako. Horretan parte hartzean zerbaiten zati bat zara. Dena ongi ateratzea ikustean... Betez eta poztasun hori ez dizu inork kentzen, eta irabaziekin herrirako gauzak erosten dira. Disfrutatzeke beste modu bat da. Jendea animatu behar da, bestela, azkenean, galduko da.

Jende bera badago dena antolatzen, jendea erretzeko arriskua dago. Erreleboa egon behar du.

**7 Zergatik hasi zineten Herri Bazkariaren antolakuntzan?**

Antolatzen zuten taldeek gehiago ez zutela egiten esan zutenean udalak catering bat kontratatu nahi zuen. Talde batek ardura hartu zuen. Herri Bazkaria ezin

zen hil horrelako zerbitzu egiteko indarra, kapazitatea eta borondatea bazegoelako.

**8 Menua beti berdina da?**

Momentuz ezberdina eta askotarikoa izan da, paella izan ezik. Hori bi urtetan errepikatu dugu. Baina hasierako platerak aldatzen ditugu. Bazkari elaboratua izatea nahi dugu, ona izatea. Esan beharra dugu erosketak Altsasuko denda guztietan banatzen ditugula.

**9 Herri Bazkaria Altsasuko festen ekimen jendetsuena da. Zein da arrakastaren sekretua?**

Sortzen den giroa eta ahoz aho. Oso plurala da. Mota guztietako jendea doa. Azkenean herri bat gara, nahiz eta herri handia izan hor ikusten da herri izaera hori dugula.

**10 Zenbat denbora eskaintzen diozue antolakuntzari?**

Egia esan lan handiena jendea lortzea da. Elkarre bezala osatu ginenetik denbora gehiago eskaintzen diogu, baina ez da asko. Gauza da hiru hilabete behin biltegiko giltza eskualdatzen dugula. Baina ez da lan handia. Helburua jende gehiago egotea da, ez izatea gure gauza bakarrik.

**11 Bazkaria larunbatean da. Nola bizi dituzte zuek festak?**

Sukaldariendako azken egunak lan handikoak izaten dira. Eta festak urduri bizi ditugu. Ostiralean etxera afaltzera eta gauez ateratzea gabe. Gaupasa egitearena ez da batere ideia ona. Egun hori sakrifikatzen edo inbertitzen dugu, ikuspuntuaren arabera. Baina merezi du.

Osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

